



Iparralde eta Hegoaldeko gazteen eguna Saran 03

Mugak hautsiz, gaztedia aitzinera lelopean Ipar eta Hego Euskal Herriko hainbat gazte asanblada eta gaztetxek Gazte Eguna antolatu dute hilaren 29rako Saran.



Herri kirol jaialdia ortziralean Donezteben 40

Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatuta, Nafarroako II. Mailako Aizkora eta Arpana txapelketak jokatuko dira ortziral honetan Donezteben, ferien barne.

2008ko azaroaren 13a • XXVIII. urtea
www.ttipi.net



04 Momentuz ez da egingen Doneztebeko Eguneko Zentroa

HERRIEK EZ DUTE MODURIK HALAKO INBERTSIOARI AITZIN EGITEKO



ORDOKI

altzariak

Estilo ugariko mobleak



ERAKUSKETA: Bittiria 26

SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA

lezakan euskaraz bai

azaroaren 29an larabata
11:00etatik 13:00etara
18:00etatik 20:00etara

azaroaren 30ean igondea

9:00etan **BIDEO RALLYAREN** aurkezpena, frontoian

10:00etan **ILAR-PRESTAKETA**. Plaza Zaharrean (eguraldi txarrarekin frontoian)

12:00etan **ETXEEN IZENAK EUSKARAZ**. Euskararen erabilera bultzatzeko kanpainaren aurkezpena. Plaza Zaharrean

14:00etan **BAZKARIA, ILAR JATEA**. Frontoian

15:30ean **KANTALDIA**. Frontoian

19:00etan **BIDEO EMANALDIA** eta **SARI BANAKETA**. Herriko Etxeko arkupeetan

11:00etatik 13:00etara
18:00etatik 20:00etara

Kontseiluak 10 urte **ERAKUSKETA IBILTARIA**.
Beti Gazte elkartearen aretoan

"PIANO BAT BERTSOTAN"

ANTOLATZAILEA

LAGUNTZAILEA

Lenakako Udala

www.eitar.com

KONTSEILUA 10 URTEZ BIDEA IREKITZEN

13!

DATUAK...

- Duela gutti izendatu zuten **Mattin Oronoz Sarako Gaztetxe-ko lehendakari**, eta sartu berria bada ere, **Gaztetxea eta gazteak euskalduntzeko gogoz dago.**
- **Iparraldeko eta Hegoaldeko bertze gazteekin batera, hilaren 29an Saran eginen den Gazte Eguna da orain eskuartean duten proiektu nagusia.**
- **Oraingoz, Sara, Arantza, Bera, Lesaka, Azkaine, Urruña, Kanbo, Donamaria, Donibane Lohizune eta Elizondoko gazteek hartuko dute parte, baina ekimena gazte euskaldun guztiei zabaldu diete.**



Mattin ORONOZ *Sarako Gaztetxe*ko lehendakaria

ARGAZKIA: G. PIKABEA

«Muga gainditu eta jendeari hau Euskal Herria dela ulertarazi nahi diogu»

Gurutze PIKABEA

Azaroaren 29an lehendabiziko aldiz Iparraldeko eta Hegoaldeko gazteen eguna eginen da Saran. Nola doaz prestaketa lanak?

Lan handia da baina nahiko aitzineratuak doaz. Lana batez ere zer behar den pentsatzeak ematen du, material guztia biltzeak... Gauza anitz dira. Gaztetxeen artean lehen aldiz eginen da Iparraldean horrelako egun bat eta ahal bezain hobekien ateratzea nahi dugu.

Noiz hasi zineten antolatzen?

Duela hilabete batzuk hasi ginen. Emili Leizagoien, lehenagoko lehendakaria, Hegoaldeko gazteen bilkura batera joan zen eta han gazte eguna Iparraldean egitea aipatu zuten. Motibatu gintuzten eta Saran egitea erabaki zen. Aurtengo Gazte Egunaren ondotik, segida emateko asmoa dugu eta urtero egiten saiatuko gara.

Zein herriko gazteek hartuko duzue parte?

Iparraldeko eta Hegoaldeko nahasketak bat izanen da. Momentuz, parte hartuko dugunak Sara, Arantza, Lesaka, Bera, Azkaine, Urruña, Donamaria,

«Emili, lehenagoko lehendakaria, Hegoaldeko gazteen bilkura batera joan zen eta han gazte eguna Iparraldean egitea aipatu zuten. Horrek gu motibatu gintuen eta Saran egitea erabaki zen»

Kanbo, Donibane Lohizune eta Elizondoko gazteak gara. Halere, bertze herrietako gazte asanbladei ere mezua helarazi nahi diegu. Iparraldean gazte asanblada anitz ez direnez, gaztetxei zabalduko diegu mezua. Proposatutako diegun guztiek baiezkoa eman digute eta laguntzeko prest daude. Baina gazte euskaldun guztiei irekia dago.

Zein da topaketa honen helburua?

Lemak dioen bezala, *mugak hautsiz, gaztedia aitzinera*. Helbururik nagusia gure hesien gainetik gazteen arteko harremanak lotzea da, elkar ezagutu eta anaitasun bat sortzea gure artean. Mugaren oztupoa gainditzea nahi dugu, eta hau Euskal Herria dela ulertarazi nahi diogu jendeari. Elkartasunaren bidez independentziaren alde aitzinera egin nahi dugu.

Egun horretarako behar duzun guztia gazte asanblada edo gaztetxeek paratuko duzue?

Musika taldeei urrik etortzeko eskatu diegu eta denak ados dira. Behar den gainerako guztia, gaztetxe eta gazte asanbladen arteko diruarekin erosiko dugu.

Zein izanen da egitaraua?

Goizean, 10:30ean txistulariak karraketan ibiliko dira, eta ekitaldi labur bat eginen da jendeari zertarako bildugaren errateko. Txalaparta eta bertsolariak ere izanen dira. Gero kontrabandisten inguruko hitzaldia izanen da, gure arbasoen bizia hori baitzen. Bazkaria egiteko pasta txapelketa antolatu dugu gaztetxeen artean. Bazkalondoan, jokoak izanen dira: kantuak, xiba jokoak, sokatira... Gero kalejira edo manifestazio animatua eginen da, eta gauean afaria. Tartean Abiadura Haundiko Trenaren kontrako ekitaldiren bat egiteko asmoa ere badugu. Azkenik, 22:30ean kontzertuak hasiko dira: Gaztetxe Band, Garraxi, Aizkor erauntsia... Bozpasei talde izanen dira, denak ingurukoak.



ARGAZKIAK: GURUTZE PIKABEA

Nati, familia laguntzailea, egunero joaten da Enriqueren etxera. Doneztebeko pisu tutelatueta**n bakarrik bizi da Enrique eta etxeko lanetan laguntzen dio Natik.**

Donezteben eguneko zentrorik ez egitea erabaki dute Mankomunitateko herriek

INBERTSIO HAUNDIEGIA DELAKO HARTU DUTE, BATEZ ERE, ERABAKIA

Biztanleria gero eta zaharragoa da. Geroz eta gazte guttiago dago; bizi-itxaropena gero eta luzeagoa da eta adineko aunitz dago. Datuek ere hala erakusten dute: Baztanen, Urdazubin eta Zugarramurdin, biztanleriaren %23 inguru 65 urtetik goitikoak da; Bortzirietan, berriz, populazioaren %18 inguruk 65 urte baino gehiago ditu eta Malerrekan ere datuak adierazgarriak dira: biztanleriaren %18 baino gehiago 65 urtetik goitikoak da. Populazioa zahartzearekin batera, gizartearen eredia aldatu egin da eta urteetan etxeko adinekoa zaintzeaz arduratu den emakumea lan mundura sartu da. Egoera horrek eta hertze hainbat arrazoik behartuta adinekoei zerbitzu berriak eskaintzen zaizkie orain: etxez etxeko zerbitzua, zaharren egoitza, pisu tutelatuak edo tutoretzapekoak, eguneko zentroa... Etxez etxeko zerbitzua ongi errotutako zerbitzua da inguruan; hiru zaharren egoitza daude eskualdean –Beran, Elizondon eta Lesakan–; Donezteben pisu tutelatuak daude. Baina eguneko zentroa? Hasi Bidasoa aldetik eta Baztan aldera arteko adinekoentzat eguneko zentroa egitekoa zen Donezteben, baina azkenean ez. Bertan behera gelditu da egitasmoa.

Gurutze PIKABEA

Eraiki aitzinetik, Malerrekan Mankomunitatean buruhauste franko sortu ditu Donezteben eguneko zentroa erakitzeko proiektuak. Halako gune baten beharra ikusten dute Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean, Malerrekan dagoen adinekoen kopurua altua delako eta menpekotasunen bat dutenak ere ez direlako gutti. 65 urtetik goitikoak biztanleriaren %18,3 dira, eta kopuru horren %28, 80 urte baino gehiagokoak dira. 65 eta 70 urteen artean dauden gehienak gizonezkoak dira, eta 80 urtetik goitiko gehienak, berriz, emakumezkoak. Gisa berean, aipatzekoa da, 60 urtetik goitikoan ia %29, 75 urte baino gehiago dituzten ezkongabeak direla, gizonezkoak batez ere.

Menpekotasun handia eta larria zenbatek duten jakiteko ikerketa bat ere egin zuen Gobernuak eta 90 kasu zenbatu zituen adinekoen artean.

Panorama zein den ikusita sortu zen eguneko zentroa eraikitzeko asmoa, baina Malerrekako Mankomunitatea osatzen duten 15 herrietako ordezkariak eguneko zentroaren egitasmoa momentuz alde batera uztea erabaki dute. Batzuk alde, bertzeak kontra. Baina gehiengo osoz utzi dute alde batera eguneko zentroaren ideia. Arrazoi ugari dago horren gibelean, baina nagusia alderdi ekonomikoa izan da.

ZENBAKI HAUNDIAK DIRU GUTTI DUTEN HERRIENTZAKO

3.057.643 euroko aurrekontu batez ari gara –altzariak eta gainerakoak kontuan hartu gabe–, eta Nafarroako Gobernuak %30eko laguntza baino ez zuen iragarria. Hala, herriek guztien artean ordaindu beharko lukete proiektua, eta horretarako dirurik ez dago. Kontuhartzailearen txostenak ere halaxe zioen, Malerrekako Mankomunitatea ez dela gai halako inbertsio batean sartzeko.

Biztanleriaren arabera, inbertsioari aitzin egiteko, Beintza-Labaienek 69.706 euro ordaindu beharko lituzke; Bertizaranak 178.077 euro; Donamariak 117.629 euro; Doneztebek 441.654 euro; Elgorriagak 62.898 euro; Eratsunek 50.918 euro; Ezkurrak 51.462 euro; Iturenak 132.060 euro; Oitzek 42.749 euro; Saldiasek 35.669 euro; Urrotzek 52.551 euro; Zubietak 86.315 euro eta Sunbillak 119.588 euro. Zenbaki haundiak dira herri titkientzat.

Baina eguneko zentroa beharrezkoa ote litzatekeen galdetuta, ez dute zalantzarik izan Begoña Alberro eta Irantzu Izeta Malerrekako Gizarte Zerbitzueta-ko teknikariak: «*arras ona izanzen litzateke Donezteben. Funtzionatuko luke. Adinekoek etxean bizitzen segitzen aukera izanzen lukete, eta egunean zehar etxean ez dituzten zerbitzu batzuk jasoko lituzkete*».

SANZEN 500.000 EUROAK

Duela bi urte Arkupeak Elkarteak egindako besta batera etorri zen Miguel Sanz Nafarroako presidentea, eta Donezteben zaharren egoitza egiteko 500.000 euroko laguntza emanen zuela adierazi zuen. Zahar-etxe baten beharrik ote zen ikusteko ikerketa bat egin zen orduan, baina Zaharrentzako egoitzak Elizondon, Beran eta Lesakan izanik, alde horretatik hutsunerik ez dagoela ikusi zen, eta dirulaguntza hori eguneko zentro batentzat izatera pasatu zen. Diru hori inbertitzeko hasi ziren mugitzen, baina momentuz beheren, eguneko zentro batean inbertitu gabe geldituko da.

BERTZELAKO ZERBITZUAK

Etxez etxeko laguntza eta pisu tutelatuak: estimu haundiko zerbitzuak

Frantxiskak 91 urte ditu eta Donezteben bizi da. Arantxa, familia laguntzailea, egunero joaten zaio etxera, eta elkarrekin egunero ogia erostera ateratzen dira. Adinean aitzinera joana izanagatik, gustura ateratzen da Frantxiska Arantxarekin. Ez da, ordea, etxez etxeko zerbitzuarekin gustura dagoen bakarra, Enriquek ere kontent hartzen du eguneroko Natiren bisita. Adinekoentzako etxez etxeko laguntza eta Donezteben dauden pisu tutelatuak gero eta arrakasta haundiagoa duten zerbitzuak bihurtu dira Malerrekako.

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAREKIN LANEZ GAINEZKA

Etxez etxeko bortz familia laguntzaileen bitartez, egunero 30 etxebizitzetan eskaintzen dute zerbitzua, eta etxe batzuetan, gainera, erabiltzaile bat baino gehiago daude. Lanez gainezka daude, «*ez gara gehiagora ailegatzeko*», aitortu digu Alberrok. Etxez etxeko zerbitzuak gehienez egunean bi orduko zerbitzua eskain dezake. «*Baina ezin dugu hori ere egin*», dio Izetak. Zerbitzua jende aunitzen artean banatu behar dute eta ordu bat eta ordu bat eta erdiz egoten dira etxe bakoitzean. «*Gainera zonalde zabalak da Malerrekako eta batera eta bertze bidean denbora aunitz joaten da*». Horregatik, zerbitzu hau indartzearen alde egin dute bai Begoña Alberrok eta bai Irantzu Izetak ere, «*ongi funtzionatzen baitu*».

PISU TUTELATUAK:

KOSTATA BAINA MARTXA ONEAN

Duela 12-14 bat urte egin ziren pisu tutelatuak Doneztebeko Elizagibela karrikan. Etxebizitza arazoaren bat zuten adinekoentzako egin ziren, oztopo arkitektonikorik gabe, 20 guztira. Sukalde-egongela, komuna eta logela ditu apartamentu bakoitzak. Igogailua ere bai, eta guztien artean partekatze-egongela haundi bat eta garbikua edo ikuztegia. Hori guztia gehienez hila-betean 190 euro ordainduta –berogailua barne–. Orain, denak beteta baldin badaude ere, dezente kostata egin omen ziren: «*Jendeak beren etxeetan segitu nahi zuen. Eta orain itxaron zerrenda ere badago*», adierazi digu Izetak. Hasieran hirugarren adinekoentzako bakarrik planteatu zuten, baina betetzen ez zirela ikusita, adin tartea zabaltzeko, Mankomunitateak mailegua eskatuz egindako inbertsioa erretagarria izan zedin. Gaur egun, ordea, hasieran ezarritako baldintzetara mugatzen dira, beteta daudelako. Pisu tutelatuak deitu arren, Gizarte Zerbitzuetako teknikariak etxebizitza sozialak direla argitu digute: «*ez dira pisu tutelatuak baldintzak betetzen, eraijin horretan ez baitago inor 24 orduz*». Edonola ere, erabiltzaileak gustura, eta

Gizarte Zerbitzuetan ere bai: «*Beharrrak betetzen saiatzen gara, nahiz eta beti hobetu daitekeen*».



Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Milder Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltoarena, Aitor Arotzena, Amaia Odrizola, Maite Oteiza, Jaione Otxandoreña, Xan Harriague, Rakel Amigo, Iraixe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2008ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	34 €
Espainia	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	27 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jasotzen du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jasotzen du.

• IRAKURLEAK MINTZO •

Euskaraz bizitzeko eskubidearen alde, ofizialtasuna orain!

22 urte luze joan dira Nafarroako Parlamentuak Vasconicearen legea onartu eta Nafarroa hiru eskualdetan banatu zuenetik. 22 urte luze, beraz, euskal hiztunen eta nafar guztien hizkuntza eskubiak urratuz. 22 urte horietan lege horren emaitza aski ezaguna zaigu euskaldunoi: euskaraz ikasteko ezintasuna, isunak, euskarari zuzendutako dirulaguntzen murrizketa, administrazioarekin harremanak euskaraz izateko trabak... orriak eta orriak betetzeko adina eskubide urraketa. Azken batean euskaraz, hots, Nafarroan hizkuntzan (LINGUA NAVARRORUM), bizitzeko ezintasuna.

Lege urratzaile hori nahikoa ez eta, gainera, azken urteotan euskararen aurkako politika gordin eta sistematikoa jarri da indarrean. Euskara gure bizitzako alor guztietan bazterre-ra zokoratzeke nahia nagusitu da. Ez dute behar helburua lortu, ordea, euskaldunon lana, kemena eta borrokari es-

ker. Gobernuak eta hizkuntza politika ofizialak oztopoak, maltzurkeria eta eskubideen murrizketa jarri duten tokian, nafar jendarteak eta euskaltzaleek izerdia eta lana jarri dute, eta baita ilusioa, irudimena eta bizi-zipoza ere. Azken aldi honetan hainbat kontutan ere atzera egin behar izan dute, zenbait aldaketa aurrera eraman behar izan dituzte, eta hori, izan ere, etsi ez dugulako gertatu da. Euskaldunon eta euskaltzaleen ahaleginari esker eutsi dio euskarak etorri zaion zaparradari.

Ez dugu, nolana ere, beti horrela ibiltzerik nahi. Gure herrian, gure hizkuntzan normaltasunez eta osotasunez bizitzeko erabateko eskubidea baitugu. Horregatik guztiatik, eta azken hilabeteotan legearen inguruan dabilen eztabaida gogoan izanda, horren gaineko gure ekarpena egin nahiko genuke.

Tokian tokiko aldaketatik haratago, nafar gisa, lege baino gehiago eskubide urratzaile den hori atzean utzi eta hizkuntza politika berri baten bila joateko garaia da. Urrats txikiak eta egunerokoak

behar ditu euskarak, baina horiek ez dira nahikoak; euskarak urrats sakonak eta handiak ezinbesteko ditu, iraupen hutsetik garapenerako eta berreskurapenerako jauzia egin nahi badugu. Eta, besteak beste, euskararen ofizialtasunean oinarrituta, euskararen berreskuratze prozesua bermatu, bultzatu eta gorpuztuko duen lege berri bat behar dugu. Bestela, Kontseiluak berak esan zuen, azken 15 urteetako bilakaera ikusita, 834 urte beharko genituzke euskararen eza gutza unibertsalera iristeko.

Horiek horrela, nafar jendarteari dei egiten diogu, azaleko aldaketetatik haratago, euskararen etorkizuna bermatuko duten sakoneko aldaketen alde lan egiteko. Euskaltzale guztiok aktibatu eta benetako aldaketa baten aldeko indarrak biltzeko abagune ezin hobea da hau, honako hau aldarrikatuz: Euskara ofiziala orain!!

Sinatzaileak:

Aitziber Larrea, Gari-koitz Torregrosa, Nora Uribetxeberria, Susana

Bidarte, Alaitz Gonzalez, Idoia Zabalza, Joseba Otano, Expe Iriarte, Estixu Arozena, Patxi Salaberri, Nestor Esteban, Igor Arroyo, Dabid Anaut, Olatz Zabaleta, Inma Zestau, Iñaki Perurena, Eduardo Conde, Alizia Iribarren, Aitziber Sarasola, Amagoia Susperregi, Nestor Martinez, Iñaki Lasa, Paul Bilbao, Txari Eleta, Gontzal Agote, Sagrario Aleman, Koldo Ibañez de Elejalde, Juanja Iturralde, Haizea Bengoetxea.

Gogoko tokian aldarrikatu ez!

Antza denez, Baztango Udala krisi garaian inoiz baino erosoago sentitzen da baztandarron dirua xahutzen.

Orain dela hilabete batzuk Elizondo hiri garrantzitsu bat zela sinestarazi nahi izan zigiten. Zergatik bestela autoa aparkatzeko ordaintzera behartu? Iruñean, Donostian, Bilbon... eremu urdinagatik diru sarrera ederra



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METAICOS S.A

Igantzioko bentak
948 63 74 11

- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraioak zintak eta mahaiaik.
- Mantenu rodilloak.



PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masajak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

● IRAKURLEAK MINTZO ●

lortzen dute. Dirudienez Elizondon ez da gauza bera gertatzen, abian jarri zenetik egun gutxitara marra urdinak txuri bihurtu baitira.

Ez dakit aspertzen zirelako, dirua gastatzeko prest zeudelako... baina abuztua aldera futbol zelaietan belar artifiziala jarri behar zutela bururatu zitzairen. Hamaika ikusketo jaiok gara!!!

Hau gutxi balitz, azaroaren hasieratik Elizondoko Jaime Urrutia kalea hankaz gora daukagu, emaitza zein izango den jakin gabe. Orain arte erabilitako galtzardi-zola baino gehiago irauango du? Hori behintzat espero dugu.

Aurrezki guztiak Elizondorako erabiltzen dituzte gainontzeko herrien beharrei jaramonik egin gabe. Ea diru mukurua agortzen denean ere tratu bera jasotzen dugun!!!!

Gastu duin batengatik!!!!

Baztandar batzuk

Lesakako Kultur Egunetatik Lesakan Euskaraz Bai egunera

Joan den apirilean, Lesakako Euskara Batzordeak bilera zabala deitu zuen gogoeta egiteko. Zein dira euskararen beharrak Lesakan? Horretarako zer egiten ahal da? Gisako galderrei erantzuten saiatu ginen. Batzorde honen egiteko nagusia euskararen erabilera sustatzea izanen zela erabaki genuen. Arlo guztietan eragin behar dela jakina da. Baina guztia batera ezin denez egin, lehentasunak finkatu eta plangintza batean bildu genituen 2008rako helburuak.

Lesakako Euskara

Batzordearen plangintzan toki berezia du Lesakan Euskaraz Bai egunak. Gure asmoa da hemendik aitzinera, urtero, tankerako jardunaldi bat antolatzea, euskararen erabilera bultzatzeko. Euskara batzordeak Kultur Egunak antolatu izan ditu orain arte, eta ekarpen polita egin dio Lesakako kultur egitarauri azken urteotan, euskarazko kultur ekitaldiak gurera ekarrita. Alabaina, pauso bat aitzinera egiteko tenorea heldu da; euskararen normalkuntza, erabilera eta garapena ditugu helburu, eta horretarako, Euskaraz Bai eguna ekarpen interesgarria izaten ahal da.

Euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina aurkeztuko dugu egun horretan. Aurten, bere-

ziki, gazteen giza taldea izanen dugu gai nagusi. Gainera, Kontseiluak 10 urte bete dituela-eta, ekitaldia antolatu du BEC-en, eta deialdi horrek toki izanen du gurean.

Lesakako Euskara Batzordeak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu Lesakan Euskaraz Bai eguneko ekitaldietan parte hartzera. Azaroaren 30ean, elkar ikusiko dugu euskararen alde!

Urko Ikardo Enparan
Bortzirietako Euskara
Teknikaria
Lesakako Euskara
Batzordearen izenean

Ikurrinaren koherentzia

Leitzako festetako al-

dizkarian, Aralarrek ataratako idatziari segida bat emateko, gure identitatea defendatzen duenari, bestelakoak eta bi esaterako ausartu zineten, herri mobilizatzen, Herri Plataforma eta ondoren ikurrina batzordea.

Oraingo Udalean errepresentazioz ezean, egoera aprobetxatuz esandakoa irenstearen konplize izatea demostratzen ari zarete. Orain ez al duzue herri kontsultarik egin behar galdera berarekin?

Defendatzen zenuena orain ez al da defendagarria?

Erantzunaren zain, hitzetakoak ez!

Bi Aralarkide
D.B.A. eta J.E.A.

OHARRA

Eskutitz guztiekin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapak** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

edredoi fundak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lantzeria-etxea

**Edredoi fundatan
espezializatuak**

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

EUSKARAZKO HEDABIDEAK

Aurten oraindik laguntzarik banatu ez duenean, 2009rako murrizketak iragarri ditu Gobernuak

Hurrengo urteari begira, 9.567 euroko kontu-saila onartu du euskarazko hedabide guztientzako

ttipi-ttapa

Behin eta berriz laguntza exijitu arren, alferrik. Aurrekontu murrizketa aitzakia hartuta, euskara erabiltzen duten hedabideek ez dute dirulaguntzarik jaso oraindik aurten, eta itxura guztien arabera, ez dute jasoko. Urtea bukatzeko bi hilabete eskas gelditzen direnean, hedabideetan euskara erabiltzeko onartutako partidak blokeatuta segitzen baitu. Nafarroako Gobernuak 2008ko aurrekontuetan hedabideetan euskararen erabilerara sustatzeko 310.000 euro iragarri zituen; baina ez du dirurik banatu eta gainera, 2009ko aurrekontuetan ere murrizketak izanen direla aitxineratu du. Alegia, inoiz baino diru guttiago banatu du.

Ekainean aurrekontuetan murrizketak egiten zituela erran zue-nean, batez ere, Euskarabideko aurrekontua murriztu zuen; eta helduden urteari begira ere, murrizketa haundiena Euskarabideak jasanen du. Eta Euskarabidea-

ren barrenean, euskarazko hedabideek nabaritu dituzte ondorioak batez ere.

Hurrengo urterako ia %100eko murrizketak iragarri ditu Miguel Sanzen Gobernuak euskarazko hedabideentzat. Hedabideetan euskara indartzeko 9.567 euro onartu dira 2009rako, hedabide guztien artean banatzeko -40tik goiti-. 2008rako iragarriak ziren 310.000 euroak baino %96,91 tikiagoa da onartutako diru saila.

Halere, Euskarabideako goi-karguen soldatetara bideratutako partida nabarmen hazi da: 2008an baino %201,37 gehiago banatuko da soldatetan. Aurten 58.842 euroko diru saila bazen, 2009an 177.331 eurokoa izanen da.

Ondoko taulan, alde batetik, 2008rako hasiera batean iragarri ziren kontu-sailak ageri dira -nahiz eta ez diren banatu-, eta bertzetik, 2009rako iragarritakoak ageri dira. Urte batetik bertzerera iragarritako murrizketa eh-nekoetan bildu da.

	2009	2008	ALDEA
EUSKARABIDEA	3.070.653	4.045.435	-%24,10
JARDUERA OROKORRAK	550.387	1.213.345	-%54,64
Goi karguen soldatak	177.331	58.842	%201,37
Funtzionarioen soldata finko osoak	169.254	790.724	-%78,60
Langile finkoen soldatak		36.569	-%100
Ordezkapenatarako langileen soldatak	73.111		
Hutsuneak betetzeko langileen soldatak	1		
Gizarte Segurantza	96.328	246.710	-%60,95
Mantenimendua, konponketak	200	200	%0,00
Bulegoko materiala	2.00	4.000	-%50,00
Harpidetzak eta liburuak	800	800	%0,00
Komunikazio postalak	1.500	3.000	-%50,00
Kongresu eta jardunaldien antolaketak	5.000	6.000	-%16,67
Erakusketetan parte-hartzea	1.000	18.000	-%94,44
Bertze gastuak	4.719	10.000	-%52,81
Euskararen Nafarroako Kontseilua	3.000	6.000	-%50,00
Dietak	1.893	3.770	-%49,79
Lokomozioa eta bidaien gastuak	6.500	13.230	-%50,87
Lokalak egokitzeko obrak	250	500	-%50,00
Altzariak eta bulegoko ekipamendua	2.500	5.000	-%50,00
Informatika-ekipamendua	5.000	10.000	-%50,00
EUSKARAREN GARAPENA	1.626.010	1.854.321	-%12,31
Funtzionarioen soldata finko osoak	873.842	407.126	%114,64
Euskararen aldeko kanpainak	160.000	110.000	%45,45
Soziolinguistika eta heziketako argitalepnak	25.000	54.481	-%54,11
Udal eta Kontzejuntzako laguntzak	350.000	550.000	-%36,36
Eremu ez-euskaldunetako ikastolentzat	106.601	154.714	-%31,10
Euskara hedabideetan erabiltzeko laguntza	9.567	310.000	-%96,91
Euskarazko kultur jarduerak sustatzeko	30.000	150.000	-%80,00
Euskara teknologia berrietan	20.000	40.000	-%50,00
Euskararen Mediateka: fonoteka eta liburutegia	50.000	60.000	-%16,67
Funtsa editorialak eta ikusentzunezkoen erosketak	1.000	18.000	-%94,44
AHOLKULARITZA ETA IKERKETA ZERBITZUA	894.256	977.769	-%8,54
Funtzionarioen soldata finko osoak	244.256	134.447	%81,67
Helduen prestakuntzarako gastuak	3.000	6.000	-%50,00
Kanpoko euskal hitzunekin harremanak	5.000	5.000	%0,00
Administrazio publikoan euskarren prestakuntza	6.000	9.000	-%33,33
Aholkularitza tokiko eta estatuko administrazioei	3.000	6.000	-%50,00
Hizkuntza politikaren analisia, ikerketa ebaluzioa	7.500	15.000	-%50,00
Soziolinguistika azterketa eta proiektuak	30.000	60.000	-%50,00
Itzulpen lanen kontratazioa	2.000	4.000	-%50,00
Terminologia eta lingustika	15.000	30.000	-%50,00
Ikerketa eta prestakuntza soziolinguistikoa	7.500	15.000	-%50,00
Euskaltzaindia	160.000	160.000	%0,00
Gau-Eskolak	400.000	510.000	-%21,57
Toponimia	11.000	23.322	-%52,83





**GARRANTZI
HANDIKOA**



Kamioi eta autobus gidariek behar duten CAP Ziurtagiria eskuratzeko Nafarroako lehenengo zentroa

Azaroaren 15ean hasiko da ikastaro berria

2009ko irailaren 9tik aitzinera kamioiak gidatzeko, gidabaimenaz gain, derrigorrezkoa izanen da CAP - *Certificado de Aptitud Profesional* ziurtagiria lortzea. Hori lortzeko 140 orduko ikastaroa egin behar da, klasera joatea nahitaezkoa da, eta azterketak, garraioari buruzko 100 galdera izanen ditu.

Irailetik aitzinera ziurtagiri hau derrigorrezkoa da autobus gidarientzako ere.

KAMIOARENDAKO GIDA BAIMENA ATERATZEKO ASMOA BALDIN BADUZU, aprobetxatu orain, ahal bada apirila baino lehen matrikulatuz.

Teorikoa autoeskolako egun batean ikasiko duzu eta galderak etxean ikasteko eramanetz, aste bakar batean azterketara eramanen zaitugu **AZTERKETA GAINDITZEKO SEGURTASUNAREKIN.**

Garraiolarien prestakuntzan Nafarroako lehenengoak gara:

- 850 gidabaimen baino gehiago, kamioiendako.
- 370 gidari, gidatze-eraginkorraren ikastaroa egin dutenak.
- 120 merkantzia arriskutsuen ikastaro, oinarritzko ADR eta zisternak.
- 38 garraiolari titulu, horietatik %85k aurten gaindituak.

Irakasletza eta administrazioan 12 langile finko eta 5 kanpokoak.

CAP - *Certificado de Aptitud Profesional* ziurtagiria lortzeko **NAFARROAN BAIMENDUTAKO LEHENENGO ZENTROA** eta gidatze-eraginkorraren ikastaroak emateko hautatu duten zentro bakarra.

ESKATU INFORMAZIOA INOLAKO KONPROMISORIK GABE

ELIZONDO 948580077
IRUÑA 948853535

BERA

Kirol eta kultur ekitaldietarako laguntzak banatuko ditu Udalak

Eskaerak aurkezteko epea azaroaren 28an bukatuko da

ttipi-ttapa

Azaroaren 28an bukatuko da kirol eta kultur ekitaldiak antolatzeke Udalak banatuko dituen dirulaguntzak eskatzeko epea.

Kirol arloari dagokionean, bi dirulaguntza mota banatuko ditu Udalak: denboraldi luzez irauten duten kirol jardueretara bideratuak –liga bat, urte osoko mendi ateraldiak...– eta egun bateko kirol ekitaldietarako –mendi maratokiak, Lizuniagako Igoera...–. Iraupena duten jardueren kasuan, dirulaguntza osoaren %80a emanen da. Dirulaguntza onartu eta egun batzuetara egokitutako kopuruaren %50a jasoko dute, eta urte hondarrean, ebaluazio orria entregatzean, gainerakoa. Egun bateko ekitaldietara, berriz, dirulaguntza osoaren gainetik %20a bideratuko da. Hauen kasuan, kirol jarduera hori egin eta 30 eguneko epean justifikatu beharko dira gastuak. Ondotik ordainduko zaie dagokien dirulaguntza, ongi arrazoituta.

Kultur ekitaldien kasuan, egiten diren egunetik hurrengo 30 egunetan justifikatu beharko dira gastuak.

Parlamentariak Toki Onan

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak Toki Ona insti-

tutua bisitatu zuen azaroaren 4an. Atzerriko hizkuntzak ikasteko zein prozedura eta proiektu lantzen duten ikusi nahi

izan zuen. Insitutuko ordezkariak hizkuntzaren tratamendua nola garatzen duten azaldu zitoten aipatu Batzordeari.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Lurraren Eguneke sarituak iazko berdinak

Giro ederrean joan zen urriaren 26an egin zen Lurraren Egunean XXII. edizioa. Aitzineko egunean, berriz, Lizuniagako Igoera eta Barazkiopil Lehiaketa egin ziren. Azken honetan, epaimahaiak zortzi plateren artean, Xiziriak taldearena aukeratu zuen. Lurraren Egunean, Euskal herritik etorritako 60 artisauen lanak ikusteaz gain, 22 baserriko produktuak ere ikus ahal izan ziren. Tartean, Labiaga ikastolan, *Beratarrak* izeneko argazki erakusketa paratu zuten. Gasna eta Sagardo Lehiaketetan, 19 eta 13 parte-hartzaile aurkeztu ziren, hurrenez hurren, eta sariak joan zen urteko berberentzat izan ziren. Gasna guztien artean, Arantzako Serorenbordako Margari Madariagarena aukeratu zuen epaimahaiak. 220 euro eta orogarrria jaso zituen. 100 euroko bigarren saria Garmendikobordako Xokorro Almandozek eskuratu zuen, eta 75 euroko hirugarrena Arantzako Ximonenbordako Salvador Madariagarentzat izan zen. Sagardo lehiaketan ere, iaz bezala, Lesakako Buenosaireseneako Joxepa Almandozentzat izan zen. Arratsaldean, pailazoen emanaldia izan zen, eta sari banaketa eta enkantearen ondotik –100 euro ordaindu zituzten gazte irabazle erdiagatik–, bertsolarien saioa etorri zen. Egunari akabera emateko, Imuntzo eta Belokirekin dantzaldia izan zen. Antolatzaileak gustura gelditu ziren egunak izandako erantzunarekin.

FLASH

Bide publikoen inbentarioak eragindako aldaketak

Herriko bide publikoen inbentarioak katastroan eragin dituen aldaketak jendaurrean paratu ditu Udalak ikusgai. Udalak 2005eko maiatzaren 18an onetsi zuen herriko bide publikoen inbentarioa behin betikoz eta inbentario hau katastroa pasatu da. Hala, katastroko lur-sail batzuk ukitu egin dira, eta aldaketa horiek Herriko Etxeko Pleno Aretoa daude. Azaroaren 27a bitarte horrengon dira, 8:30etik 13:30era bitarte.

Kafe Antzerki Zikloa

Azaroaren 7an eman ziztzaion hasiera aurtengo Kafe Antzerki Zikloari. X. edizioa da eta oraindik bertze bi saio gelditzen dira. Alde batetik, ortziral honetan, hilak 14, Lixoia ostatuan *Euskera sencilloaren manifestua* antzezlan eskainiko du Bikoteatroa taldeak. 22:00etan hasiko da. Bertzetik, azaroaren 23an, igandearrekin, *Greban gaude* ikuskizuna eskainiko du Lakrikun Antzerki Taldeak. Lagun Haundiak elkartean izanen da, 19:00etatik aitzinera.

Santa Zezilia Eguna

Santa Zezilia Eguna dela-eta, emanaldi berezia eskainiko dute hurrengo asteartean, azaroak 18, Isidoro Fagoaga Udala Musika Eskolako ikasleek. 17:30ean hasiko da saioa musika eskolan.



LESAKA

Burdinaren Etxea zabaldu dute komentuan

Pedro Lanzen lanak eta tresnak ikusgai daude bertze panel, argazki eta bideo aunitzen artean

Aitor AROTZENA

Urriaren 31n inauguratu zuten Burdinaren Zentroa, komentuko behegian. Ekitaldira, Lesakako eta Bortzirietako udal ordezkariak agertu ziren, baita Cederna-Garalur, Nafarroako Kutxa, Arcelor Mittal eta bertze erakundetakoak ere.

Hasteko, Koldo Erkizia alkateak hartu zuen hitza. Berak aipatu zuenez, Udalak urte batzuk daramatza bere ondarea, kultura eta historia garatzen. Lan horren adibide gisara paratu zituen Lesaka Ezagutu, bisita gidatuak, Erdi Aroko Azoka, erakusketak eta promozio ekintza ezberdinak, hala nola trenbidea, Agiña eta herri inguruko ibilbidea eta bertze herriekin batera egindako promozioak. Bertze baliabideen artean, forja eta burdina Lesakako biziaren garapenean oinarritzeko izan direla azpimarratu zuen.

Pedro Lanz arotzarekin sinatutako hitzar-

menaren bidez, esku-langile honek bere lanak Burdinaren Zentroari utzi dizkio. Horretaz gain, langintza horri buruzko ikusentzuneko bat ere grabatu da. Arcelor Mittal lantegiak bere produktioari buruz egindako ikusentzuneko bat ere ikusteko modua dago Burdinaren Etxean. Honela, garai batean burdina nola lantzen zen ikusten da eta gaur eguneko lantegi modernotan nola lantzen den ere ikusten ahal da.

Burdinaren Zentroa ez ezik, Lesakako Udal Turismo Bulegoa ere bertan izanen da.

140.000 EUROKO AURREKONTUA

Lanen aurrekontua 140.000 eurokoa izan da eta horietatik 36.000 euro Burdinaren Etxearen edukirako, Alfa Soluciones enpresak egindako lanarentzako izan da eta gainerakoa obra zibilerako. Dirulaguntzei dagokienez, 36.000 euro Cederna-Garalur erakundeak kudeatzen



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Bere lanari eta lan tresnei buruzko azalpenak ez ezik, garai bateko lanbide eta ohiturei buruzko azalpen aberatsak eskaini zituen Pedro Lanz arotzak inaugurazio egunean.

duen Leader + programaren bidez lortu dira.

Burdinaren Etxearen ordutegiari dagokionez, azaro eta abenduan asteazkenetik larunbatera, 10:00etatik 14:00eta-

ra eta 16:00etatik 19:00etara zabalik izanen da; igande eta besata egunetan 10:00etatik 14:00etara eta astelehen eta asteartetan itxita. Sarrera 2 eurokoa

da. Harremanetarako 948 638007 edo 690 230031ra deitu, kultura@lesaka.net helbidera idatzi edo www.lesaka.net web-orrian begiratu.



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Arkupe Elkartearen txapelaren finalerako hiru txapelketaren irudiak erakusten dituzten argazkia. Lizarrako Mertxe eta Susanak (urdinez) 30 eta 23 irabazi zieten Iruritako Edurne Argain eta Lizarrako Kristinari azaroaren 1ean jokatu zen Arkupe Elkartearen txapela goma txapelketaren finalean. Hirugarren posturako lehian ere, Lizarrako Dolo eta Maitek 30 eta 28 irabazi zieten Orioko Ines eta Asuni.

IRU BIDE
Estrategia - Asaketa
Bilbo 750, 3. Inbisa
Tel: 944 637 127

TAILERRAK ALMANDOZI
• Mekanika • Karrozeria • Itxigailuak
• Elektrizitatea • Kaniolak • Furgoneta - 4x4
Fax: 948 625 171 • Mug: 679 892 032
Benito, 18 • Abateaga Ind. • LESAKA

BOZZ-AID
JANWEDDIA
www.rr.com • 948 637 127 • LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
T. 948 637 260 - LESAKA

ETXALAR

Landagain eskolako zabaltze lanak inauguratu dituzte

440.000 euroko aurrekontua izan dute eta Gobernuak erdia eman du

Joseba eta Nerea

Dagoeneko 18 urte pasa dira Landagain eskola ireki zenetik, baina azken urtetan jaiotako haur kopurua dela-eta, ikastetxea txiki geldituko zela aurreikusi zuten eskolako kontseiluak eta Udalak. Horregatik hainbat tramite burutu zituen Udalak eskola handitzeko. 2007ko udazkenean ekin zioten obrari, eta urtebete pasa ondotik, joan den urriaren 29an egin zen inaugurazio ofiziala.

Inaugurazio ekitaldian Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Kontseilariarekin batera, alkate eta zinegotziak izan ziren, baita eskolako zuzendaria, Bortzirietako koordinatzailea, zonaldeko inspektorea eta gainerako irakasleak ere. Ekitaldi xumea izan zen. Hasteko Junkal Altzugin zuzendariak, Patxi Irisarri alkateak eta Carlos Perez-Nievas kontseilariak hitza hartu

zuten eta obraren eta eskolaren hainbat xehetasun aipatu zituzten. Gero eskola bisitatu zuten, tartean guraso batzuek ere bai. Ondotik, hamai-ketakoa eskaini zitzairen bertaratu ziren guztiei.

Obra hauekin eskolak hainbat gela berri ditu: lehenengo solairuan gimnasioa eta haur hezkuntzako gela bat; bigarrenean haur hezkuntzako gela bat, bikoizketa gela bat, ingelesa gela bat eta orientatzailearentzako bertze bat; eta azken pisuan 3. zikloko gela bat, informatika gela eta liburutegia. Obra hauek 440.000 euro inguruko aurrekontua izan dute eta Gobernuak erdia bakarrik subentzionatu du.

Inaugurazio eguna aste barruan izan zenez eta jende anitz ikusteko aukerarik gabe gelditu zenez, Udalak azaroaren 1ean eskolako ateak ireki zituen eta jende anitz hurbildu zen.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Irakasle, ikasle, guraso eta zinegotziak inaugurazio ekitaldian.

Herriko Etxe gibeletako obrak

Herriko Etxea eta Arotzenea artean dagoen zatia moldatuko du Udalak. Obra hauek beharrezkoak dira, batetik, Arotzenezaren kontra dagoen argindar transformadorea egoera txarrean eta leku desegokian dagoelako eta, bertetik, Herriko Ostatuari aldagelak eta biltegia edukitzea exijitzen diolako Osasun departamentuak. Beraz, transformadore berria Herriko Etxearen kontra paratuko da eta biltegi berria egingen da Arotzenezaren kontraraino. Bertan, biltegia, aldagelak eta komunak egingen dira Herriko Ostatuak langileentzat. Lan hauek Lasaga-Telletxea eraikuntzak egingen ditu 70.000 euroko aurrekontuarekin. Obrak ondoko egun hauetan hasiko dira.



ARGAZKIA: ARANTXA DANBORIENA

Bertso saio arrakastatsua

Hirugarren urtez segidan, sekulako giroa izan zen Kultur Egunen barne antolatutako bertso saioan. Orio eta Bortzirietako bertsolariak elkarren kontra aritu ziren, saio desberdin eta originalean. Joseba Olagarai aritu zen gai-jartzaile lanetan, eta sei bertsolarik erantzun behar izan zieten bere ariketa bereziei: Bortzirikoan taldean Ior Tainta, Josu Sanjurjo eta Joxe Juan Zubieta *Etxabe* aritu ziren, eta Oriorekin Xabier Sukia, Egoitz Eizagirre eta Ibai Esoain. Publikoko jendeari bertsoak, Etxalarko hitzei bertsoak, trikiti-xaren erritmora bertsoak, denetik izan zen. Jendeak irriz segitu zuen saioa eta aunitz inportatuz ez bazuen ere, Oriokoak izan ziren irabazle.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

ZJ

Zalain
jatetxea - hostala

14 logela bainu
eta TBrekin

Zalain auzoa z/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

mikkala

Bidasoa 41, Bera
Tel. 948 630 500

IGANTZI

Neurri haundiko trasteak Irisarrirako auzoan uzten direla salatu du Udalak

Denetarik ikus daitezke bidegurutzean, etxetresnak, altzariak...

ttiipi-ttapa

Arazoa ez da oraingoa, eta Udalak eta Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitateak behin baino gehiagotan adierazi izan dute neurri haundiko trasteak ez direla edozein tokitan utzi beharrekoak. Baina badi-rudi alferrik dela. Irisarri auzora sartzeko bidegurutzean gero eta hondakin gehiago ikusten dira, eta zabor-ontzietatik kanpo gainera. Batez ere etxetresnak, altzari zaharrak eta pneumatikoak dau-de bidegurutze horretan. Itxura zikina hartu du gainera aspaldian.

ETXERA JOATEN DIRA TRASTEAK BILTZERA
Baztanen eta Malerre-



ARGAZKIA: TTUPI-TTAPA

Zaborra edukiontzietatik kanpo dago, eta itxura zikina hartu du Irisarri auzorako bidegurutzeak.

kan bezala, Bortzirietan ere, traste haundiak Emauseko Trape-roek biltzen dituzte etxez-etxe, kamioiarekin, eta horretarako nahikoa da Emause-

koek Donezteben du-ten bulegora deitzea. 948 451979 telefonora deitu eta etxera joaten dira trasteen bila. Zaborrak nonahi uzteagatik Bortzirietako

Hiri Hondakinen Man-komunitateak isunak paratuko dituela iragarri izan du, baina momentuz, Udalak bertze behin eskatu du horre-lakorik ez egiteko.

BORTZIRIAK

Lesakan urriaren 25ean izandako 'okupazio militarra' salatu du AAMk

ttiipi-ttapa

Urriaren 25ean Lesakan egitekoak ziren ekimenak debekatu egin zituen Entzutegi Nazionalak, bai Sastrinera egitekoa zen mendi ateraldia eta bai Arranon egitekoa zen herri bazkaria ere. Kartelean amnistiaren ikurra eta presoan argazkiak agertzea izan omen zen debekuaren arrazoia. Ekimenak urtero egiten dira urrian, Ainara Fresneda eta Iñaki Fagoaga bi preso lesakarrak sasoi honetan espetxeratu baitzituzten. Beti arazorik gabe joan badi- ra ere, aurten debekatu egin zituzten. Gainera, AAM Amnistiaren Aldeko Mugimenduak jakinarazi zuenez, egun horretan, Guardia Zibilak herrian ibili ziren, herri sarrerako biribilgunean kontrola paratu zuten, plaza inguratu zuten eta ekitaldia burutzekoa zen mendirako bideak okupatu zituzten. AAMk gogor salatu zuen hori: «*modu honetako okupazio militarrek agerian uzten dute okupazio indarrek Euskal Herrian jarduteko duten inpunitatea*». Euskal Herrian biltzeko eta manifestatzeko eskubidea urratua dagoela ere kritikatu zuen Amnistiaren Aldeko Mugimenduak.

TOLDOS BAZTAN, S.L.

TOLDOAK: salmenta-konponketa, alihakua, errotulazio
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-veneziarak
PVCko LEJHO eta ITXITURAK

TOLDO IA BERRIEN ESKAINTZA
Telakurako, agurrak lapatzeko...
Neurtiak: 10x10 m • 10x14m • 8x7m • 5x6 7m

Bidasoa, 86 beheak • BERA • Tiroa eta Faxa. 948 631003

PERSIANAK TOLDOS BAZTAN

earrho
guztegi okupatzaile

27 urteko 25 bizi 1.548.000.000
948 625 335 (www.earrho.net)

D

◀◀◀◀ H I R U K I D ▶▶▶▶

Eguzki panelak ▶▶ ▶ Turgizoa
Elektrizitatea ▶▶▶ Aire egokitu
Industria mantenimendua ◀

Zelai industrialdea 42 B - 15 • 31780 BERA (Nafarroa)
948 625 335 • email: zerbitzua@terra.es

ARANTZA

Kultur Egunetako ekitaldi guztiak arrakastatsuak izan dira

Martixenekobordako Pantxo Mitxelenaren ardi gaztak irabazi du aurtengo gazta lehiaketa

Nerea ALTZURI

Joan dira aurtengo Kultur Egunak. Eguraldiari dagokionez hasierako eta bukaerako egunak zinez txarrak baldin baziren ere, tartekoa, Santu Guzien Eguna, aski eguraldi politarekin joan zen. Eta tira, eskertu genuen. Garai honetako ekitaldi guzien garrantzia guttietsi gabe, Baserritarren Egunak XIII. urtea egin du. Azoka edo merkata bisitatzeko aro ederra izan zen. Giro ona eta jendetza!

Bertako barazki, produktu, eskulan, azienda... herrikoen parte-hartzea haundia izan zen. 30tik gora postu zeuden Ekaitza Elkarteak antolatutako egunean. Azienda eta bertzelako gaien erakusketa eta salmenta aintzat hartuta, herriko plazatik hasi eta frontoira bitarte ibilbide dastagarria izan zen. Nafarroako Kutxako egoitzan, bidean, aspaldiko argazkien era-

kusketa ere ikus zitekeen. Ekaitzako ostatu xokoan salda, pintxo eta edariak eskaini ziren. Postuen artean itzulixka eginez, larruzko pilotak egiten dituen iparraldeko Punpa etxeak ere parte hartu zuen.

PARTE-HARTZAILEAK

Hauek izan ziren parte-hartzaileak: Pabloenea, Tuanekoborda, Serorenborda, Bordalarreako Ximonenborda, Martinekoborda, Martixenea, Bortzak Bat Kooperatiba, Senberro, Luis Madariaga, Mariñenborda, Felix eta Amaia Apezetxea, Otsarra, Morenbaita, Gazte Asanblada, Ximonea, Urdingoborda, Noelia, Sara, Mikel eta Elixabet, Mari Jose Lizardi, Motxenea, Eskulanetako taldea, Larrainekoborda, Sendabelarrak, Txolberro, Euskal Presoak Etxera, Arantzako Eskola, Esther Burlada, Toki Ona Institutuko 2.



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

Baserritarren Egunak jende andana erakartzen du, eta aurtengoa ere, bertako, inguruko bailaretako nahiz Euskal Herriko txokoetatik jende aunitz hurbildu zen.

batxilergoa eta 4. D.B.H. eta Punpa.

GAZTA LEHIAKETA

Baserritarren Egunez egin zen IV. Gazta Lehiaketan 12 ardi gazta aurkeztu ziren eta sei lagunez osaturiko epai-mahaiak onena Pantxo Mitxelenarena zela aukeratu zuen, 100 euroko saria emanaz. Parte-hartzaileak hauek izan ziren: Martinekoborda, Senberro, Aientsako Gaxtelinekoborda, Martixenekoborda, Laraurburukoborda, Albiz, Tuanekoborda, Serorenborda, Eguzkialdea auzoko Ximonenborda, Bordalarrea auzoko Ximonenborda, Otsarra eta Morenbaita

Bertzalde, 1.000 boleto saldu ziren zare eta oilar baten zozketarako

eta 045 zenbaki saridunaren jabea Etxeberri-kobordako Mikel Leiza izan zen. Goiz polita joan zen eta arratsaldean eta arratsez, haur tailerak, berendua eta bertso afaria egin ziren.

HITZALDIA, HERRI KIROLAK ETA MUS TXAPELKETA

Bezperan, euskal zerrira arrazaren inguruko hitzaldi interesgarria eta mus txapelketa egin ziren. Mus txapelketan, lehen saria Xabi Elizalde eta Imanol Lukanbiok eraman zuten, eta bigarrena, Alberto Fagoaga eta Xabi Larretxeak.

Igandean, Maria Jose Sardonek eta Jose-txo Urrutiak erakustaldia eskaini zuten. Urrutiaren ordezkari Miren Urkiola zen aritzekoa, baina lesio bat tarteko, azkenean Urru-

tia aritu zen. Arratsaldean, berriz, antzerkia izan zen.

Azienden aitorpena

Joan den astean Udalak plazaratutako bandoaren arabera, azienda buruak deklaratzeko epea ortziralean, azaroak 14, bukatuko da. Herriko Etxean egin beharko da, bulegoko ordutegian.

Arantza telebistan

Urriaren herriko mendietan, Herriko Etxean eta Aterpean Udazken Loreak ondoen saioa grabatu zen. Igande ilunabarretan izaten da ETB1en eta baliteke, igande honetan, hilak 16, gure herria eta herritarrak agertzea. Azaroan eman beharra da eta badaezpada erne egon beharko dugu!

PIKABEA
harategia
janariak
7. BERRA • 348 931 284

Tel: 948 634 179
ARANTZA
ALBERGIA • JATETXEA
ATERPE
ALBERGIA

Etxeko Ardi Gazta
LIZUN
GAZTANDEGIA
Petxenekoborda - SUNBILLA - Tel: 948 450 862

ESIP
Energia Berreskuratzailea
Instalazioak eta Inbentarioak
Eguzki-energia termikoa
- Kontsumoko ura berotzea
- Berregulazio
- Eguzki-energia ura berotzeko
Eguzki-energia fotovoltaikoa
eta haize-energia
- Etxe berrikuntza elektrifikazio
- Sare nagusiari elektrifikazio
sartzea
- Biomasa - Pelletak gutxienez
ALTAIBU
www.esipolar.com
info@esipolar.com
T. eta F.: 948.584.024
Mug.: 609.74.32.35

BORTZIRIAK

Bortzirietako enpresetan egin nahi diren euskara planek ez dute erantzun beroegirik izan

Orain arte egindakoaren balorazioaren berri eman du Lan Munduko Batzordeak

ttipi-ttapa

Bortzirietako enpresetan euskararen erabilera areagotzeko helburuarekin sortu zen Lan Munduko Batzordea. Hala, 2007ko iraillean horretan hasi ziren lanean. Urtebete beranduago, Batzordeak orain arte egindakoaren balorazio bat egin du eta enpresen erantzuna beroegia ez dela izan ondorioztatatu du. Horrela adierazi zuen Lan Munduko Batzordeak azaroaren 4an Lesakan egindako prentsaurrekoan. Tamalgarritzat jo zuen euskararen sustapenaren gaia aztertzeke enpresen «*pres-tutasun falta*».

Ekitaldian Urko Ikarido Bortzirietako euskara teknikariak, Koldo Sanez Lan Munduko Batzordeko kideak eta Aina Maia, Koldo Erkia eta Ramontxo Elgorriaga Euskara Mankomunitateko ordezkariak parte hartu zuten. Euren batera, Bortzirietako enpresetako langileen ordezkariak agerraldian izan ziren.

ARCELOR ETA ZALAINEK BAKARRIK ERANTZUN DIOTE BILERA DEIARI

Euskararen aldeko neurriak eskatuz, 2007ko udazkenean Bortzirietako Euskara Mankomunitateak Arcelorri, Lorpeni, Marti-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateko eta Lan Munduko Batzordeko ordezkariak hilaren 4an egindako agerraldian. Gibelean enpresetako ordezkariak.

kori, Saverari eta Zalaini bilera eskaera egin zien, 2008ko udaberrian euskararen erabilera areagotzeko planen gaia aztertzeke. Baina bi enpresek baino ez zituzten erantzun bilera eskaerari: Arcelorrek eta Zalainek. Bertze hiruretan, mankomunitatearen bilera eskaerak ez dute erantzunik izan oraindik.

Horregatik, bigarren saiakera bat egin eta biltezeko eskaera egin die berriz ere Martikori, Saverari eta Lorpeni. Horiez gain, Zelaietari ere

luzatu diote deialdia. Urtea bukatu aitzin bildu nahiko lukete.

Euskara mankomunitateak erantzukizunez jokatzeko eskatu zien enpresetako arduradunei; euskararen aldeko neurriak hartzeko enpresaren, euskararen eta bortziritarren onerako izanen dela iritzita. Horretarako, mankomunitatearen babes osoa eta aholkularitza eskaini zien enpresei.

Batzuen borondate eza eta bertzeen gogoarren hausnarketarekin agurtu zuten agerraldia.

MAHAI-INGURUAN ORTZIRALEAN

Erabilera planen inguruko dinamika eta eskakizuna indartzeko asmoz, jardunaldia antolatu du Euskara Mankomunitateak ortziralean honetarako, azaroaren 14ako. Euskara teknikari eta arduradunekin egingen da mahai-ingurua eta Hernaniko Selak, Bergarako Arcelor eta Ampo-Poyam dira gonbidatuak. Cederna-Garalur Elkarteak Lesakako Alkaiagan duen egoitzan bilduko dira, 18:00etan.



Añorgatxiki 11 behea
20018 DONOSTIA
Tel: 943 368 781
Fax: 943 368 781
Mug. 671 073 888
behetik@behetik.com



PLATAFORMA JASOTZAILEAK



SUNBILLA

Guraso Elkarteak kamisetak eta egutegiak paratuko ditu salgai

Eskolako neska-mutikoen argazkiarekin egin da egutegia

Jaione OTXANDORENA

Eskolako Guraso Elkarteak kamisetak eta 2009ko egutegiak atarako ditu urte bukaerarako herriantzerako. Alde batetik, haur eta helduendako kamisetak izanen dira, baita jertseak ere, eta bertzetik, berriz, duela egun batzuk eskolako haurrei ateratako argazki batekin osatutako 2009 urterako egutegiak. Hasiera batean, kamisetak, jertseak nahiz egutegiak erosteko lehenetsia eskolako haur eta gurasoek izango dute eta ondoren gainontzeko herritarrentzat atarako dira salgai.

Kamiseta nahiz jertseetan Guraso Elkarte logo berria azaltzen da, Jabier Ibarra egingakoa. Norbaitek kamisetak edo egutegiak erosteko interesa izanez gero, Guraso Elkarte edozeinengana jo dezake, edo bertzenaz, telefono zenbaki honetan ere egin daitezke eskariak: 609 623271.



UTZITAKOA

Irudi horixe bera da Guraso Elkartearen logo berria. Jabier Ibarra herritarrek egingakoa da.

Herritarrek ETB1en

Joan den azaroaren 1an ETBko lehen kateko kamerak gure herrian

izan ziren. Duela hilabete pare bat dei bat jasozuten telebistatik eta onddoei buruzko Udazken Loreak izeneko

saioan parte hartzeko proposamena luzatu zieten. Lau neska gazte, Natalia Arretxea, Izaro Altzuri, Itziar Aranbillet eta Goreti Antzizar eta beraiekin batera Jose Korta (Kote) elkartu ziren taldea egiteko eta bi egunez grabatu zituzten herriko eta mendiko irudiak. Hilabete bukaeran eskainiko dute saioa, baina oraindik ez dakigu ziur zein egunetan izanen den. Beraz, ttipi-ttaparen hurrengo alean emanen dizuegu informazio horren berri. Bitartean adi egon, agian hurrengo alea ateratzerako saioa pasatua egin liteke-eta.

Kontzertua larunbatean

Aitzineko alean iragarri bezala, Nafarroako Gobernuak antolatzen duen Udazkeneko Biraren barne, larunbatean, hilak 15, Giltzarri Abesbatzak kontzertua eskainiko du Elizan 20:30etik aitzinera.

DONEZTEBE

Irakurketaren tailerra antolatu nahian Errekako gurasoak

ttipi-ttapa

Irakurzaletasuna bultzako asmoz, irakurketaren tailerra antolatu nahi dute Erreka gurasoek Donezteben. Bakarka zein taldean irakurtzea da helburua, eta irakurrikakoa bertze batzuekin partekartzea. Tailerra astean ordu pare batez egiteko izanen litzateke. Interesatuak 680947844ra deitu behar dute. Edo bertzelan, errekagurasoak@terra.es helbidera idatzi.

Haur Eskola

Udalak ez du oraindik behin betikoz onetsi Haur Eskola berriaren zerbitzu publikoa arautzen duen ordenantza. Hala erabaki zuen irailaren 30eko osoko bilkuran. Hasiako onespina 91. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen uztailearen 25ean, baina oraindik betiko araudirik ez onartzea erabaki dute.

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

AMAIVR
ALTZARIAK

Rosa Seminario 13
DONEZTEBE
Tel.: 948 450 400

PARETA-ARMAIRUAK ETA BAINUETAN ESKAINTZA BEREZIAK

MALERREKA

Errotaren Eguna eginen da larunbat honetan Zubietan

Besteak beste, hitzaldia, bideoa, bisita eta taloak izanen dira

ttipi-ttapa

Egun berezia izanen dute larunbatean, azaroak 15, Zubietan, Udalak Errotaren Eguna antolatu baitu Cederna-Garalur Elkartearen proposamena onartuz eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

Ekitaldiak goizean hasiko dira. 11:00etan erro-tari buruzko hitzaldia izanen da Herriko Etxeko estalpean. Ondotik, erro-tarako egin den bideo berriaren aurkezpena eginen da. Gero, errotara bisita gidatua eginen da eta akitzeko, talo-jatea ardo eta sagardoarekin. Inguruak alaitzeaz trikitilari eta panderojoleak arduratuko dira.

Besta hau aurten Zubietan eginen bada ere, hurrengo urteetan errota duen bertze herriren batean egitea da asmoa. Izan ere, eskualdean hainbat errota daude martxan: Amaiur, Etxalar, Berra, Senpere, Urdazubi...

Inmigratioari buruzko lehiaketak

Inmigratioari buruzko ipuin, argazki eta elkarrizketa lehiaketa antolatu du Malerrekako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak. Dagoneko lehiaketa zabalik da go eta azaroaren 28a bitarte lanak aurkezteko epea zabalik egonen da. Lanak Gizarte Zerbitzuen Doneztebeko egoitzan aurkeztu beharko dira. Behin lanak aurkeztuta, abenduaren 13an besta berezia eginen da eta lanak erakustez gain, sariak banatuko dira.

IPIUIN LEHIAKETA

Ipuin lehiaketa 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendua dago. Adin tarte hau bitan banatu dute antolatzaileek: 6-9 eta 9-12 urte artekoen artean. Inmigratioari buruzko ipuin bat idatzi beharko dute



ARGAZKIA: G. URDANPILLETA

Islamari buruzko erakusketa Donezteben ortziralara arte *Islama, guztion ondarea* lelopean, xenofobia eta arrazismoaren aurkako erakusketa ikusgai dago Donezteben, Telletxea Altzarien lokal zaharrean. Azaroaren 3an zabaldu zuten eta ortziral honetan, azaroak 14, itxiko dute. Islamiar kulturaren Fundazioak egindako erakusketa hau Euskal Herriko hainbat herritan ibili da, eta Bidelagun Elkartearen bidez ailegatu da eskualdera. 36 panel eta zazpi mahai ditu, eta bertzelako informazioa ere eskaintzen du. Kultura islamiarra gure gizartean onartzea da helburua, eta «*kultura horren aurka dauden aurreiritzien aurka borrokatzea. Kultura hori geografikoki eta historikoki hurbil badago ere, sarritan ez da eza-gutzen*». Hala adierazi zuen Isidro Herguedas Bidelagun Elkarteako koordinatzaileak urriaren 31n egindako aurkezpenean –argazkian–. «*Gure eskolako ume eta ikasleak, eta interesa dutenak, islamera eta zibilliazio haundi horrek adierazten duen guztira hurbildu nahi ditugu*».

guztiek. Aipatu, Malerrekako eskoletan inmigratioa lantzen ari direla. Adin tarte bakoitzean, seinara sari banatuko dira; sei sari 6 eta 9 urte dituztenen artean eta bertze sei 9 eta 12 urte dituztenen artean. Lehen hiru joko bana jasoko dute eta hurrengo sei joko ipuinak.

ARGAZKI LEHIAKETA

Argazki lehiaketa, berriz, 12 eta 18 urte arte-

an dituztenentzat da. Arlo hau ere bi adin tartertan banatu dute, 12-15 eta 15-18 urte dituztenen artean. Kasu honetan, Malerrekako inmigratioa irudikatu beharko dute parte-hartzaileek argazkietan. 12-15 eta 15-18 urtekoentzako sariak berdinak izanen dira, lehendabizikoentzat argazki kamara digitalak eta bigarren gelditzen direnentzat musika disko bana.

ELKARRIZKETA LEHIAKETA

Elkarrizketa lehiaketa 18 urtetik goitikoei bideratua dago. Batetik, 18-25 urte artean dituztenek parte hartu ahal izanen dute eta bertetik, 25 urte baino gehiagokoei. Bi kasuetan, irabazleek talasoterapiako bi laguntzako bonoa jasoko dute eta bigarren gelditzen direnek, berriz, bi laguntzako bazkaria.

AMEZTIA

Bokadilloak, razioak, sandwich-ak,

%15 eko DESKONTUarekin



DEITU 948 450 028 eta eraman



ITUREN

Dagoeneko salgai daude Ibintza Kultur Taldearen Eguberrietako boletoak

Sariak zare eder bat, bainuetxerako bi sarrera eta bi lagunentzako afaria izanen dira

Arkaitz MINDEGIA

Urtero bezala Ibilntza Kultur Taldeak 2009ko urtarrilaren 5ean, Errege bezperan egingen den zozketarako boletoak salgai paratu ditu. Aurtengoan lehenengo saria zare eder bat izanen da, bigarrena bainuetxerako bi sarrera eta hirugarrena, bi lagunendako afaria Altxunea Erretegian.

Zarea osatzen duten produktuak Ibintza Kultur Taldeak eta herriko denda eta ostalduetuek eskainiak izaten dira: Herriko Ostaldua, Aurtizko Ostaldua, Altxunea Erretegia, Ariztegi Harategia, Maritxu ileapaindegia eta Eider ileapaindegia. Lerro hauen bidez, Kultur Taldeak eskerrak eman nahi dizkie laguntza eman duzue guztiei.

Behin zozketa egingakoan, zenbaki sariak inguruko komunikabideen bidez jakinaraziko dira: **ttipi-ttapan**,



ARGAZKIAK: [HTTP://IRATI.PNTE.CFNAVARRA.ES/CPITURNW/](http://irati.pnte.cfnavarra.es/cpiturnw/)

Bi hilabete baino gehiago pasatu dira eskolako neska-mutikoez ikasturtea hasi zutenetik. Geroztik hainbat ekimenetan parte hartu dute, eta horietako bat inmigrazioari buruzko ipuin lehiaketa izan da. 5. eta 6. mailakoek hartu dute parte.

Xaloan eta Xorroxinen. Zorte on denei!

Eskolako ikasleak ipuin lehiaketan

Malerrekako Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek inmigrazio programaren barrenean, Inmigrazioari buruzko Argazki, Elkarrizketa eta

Ipuin lehiaketa antolatu du. Herriko eskolako ere deialdia zabaldu zieten, eta hala, eskolako 5. eta 6. mailako ikasleek ipuin lehiaketan parte hartu dute. Guztira lau orrialde zituen istorioa osatu behar izan dute inmigrazioaren inguruan. Ipuin lehiaketa eta sari banaketa bi adin tar-

tetan banatua dago eta beraz, 6-9 urte bitarteko artean 6 sari banatuko dira eta beste hainbeste 9-12 urte bitarteko artean. Lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 28a izanen da eta sari banaketa abenduaren 13an egingen da, 18:00etan Doneztebeko erakusketa gelan.

Aldaketak dantza taldean

Aurreko alean aipatu bezala, dantza ikastaroak hasiak dira dagoeneko, baina aldaketa ttiki batzuk izan dira. Hemendik aurrera Nagore Arretxeak talde ttikiei erakutsiko dizkie dantzak, asteartean, eta helduei erakustera, berriz, ortziral ilunabarretan Ixone eta Izaskun beratarrak etorririko dira.

Erasun bertze final batean

Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatuta Doneztebeko ferietan Nafarroako Bigarren Mailako Aizkora Txapelketako finala jokatu da. Han izanen da Ander Erasun aurtiztarra, Luis M^a Belarra, Manuel Kañameres, Juan Jose Erdozia eta David Amillanorekin batera. Bi kanardiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat ebaiki beharko dituzte.

APARAN, S.A.

BOIXOLAIJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 060
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE



Kimetz
Belardenda

Lorea Agirre Iribarren

FISIOTERAPEUTA eta Dietetika Dietetikoak

Dietetika eta nutrizioa
Dieta pertsonalizatua
Naturista kontsulta • Masajeak

Latzakan errep. 3 tenaka 31743 Doneztebe Tel: 948 453 479
www.kimetzbelardenda@hotmail.com

GOIZUETA

Harribil Dantza Taldearekin joko du tontorra aurtengo Azaro Kulturalak

Oriotarren emanaldia eta Umore Onako mus txapelketa larunbat honetan izanen dira

Esteban AROTZENA

Lehengolarunbateko Leani eta bere nesken sabel dantza erakustaldiak eta igandeko zaharren festak eta haurrentzako bideo proiektioak hasiera distiratsua eman diote aurtengo Azaro Kulturalari. Hala ere, antolatzaileek, Kultur Taldekoek, alegia, esan digutenez, onena etortzeardago, ederra izanen baita Orioko Harribil Dantza Taldeak larunbat honetan eskainiko duena. 19:30ean goiko frontoian hasiko den emanaldi hau watt askoko soinu eta argiteriz hornitua omen dago. Horren aurretik, 17:00etan, Umore Onak antolatzen duen mus txapelketa jokatu da elkartean, finalistentzat sari ederrekin gainera aurren ere.

Azken hilabete hauetan, herrian modan dagoen gaiari helduko zaio

hilaren 22an Azaro Kulturalaren programazioan, Iñigo Txintxurreta eta Xabier Taberna herritarrek megalitismoa eta Goizuetako megalitoei buruzko hitzaldia emanen baitute Ganbaran, 19:30etik aurrera.

BAZKARIRAKO TXARTELAK

Hilaren azkeneko astebururako prestatutakoari buruzko informazio luze eta zabala hurrengo alean emanen dugu. Bakarrik, oroitarazi, 29ko ferian parte-hartze zuzena izan nahi duenak (salmenta edo erakusketak postuak ezarritik edo aziendak plazaratuz, esate baterako) udaltxera deitu behar duela berehala horren berri emanez. Gainera, aurtengo aziendak plazara ateratzeko baimena eman du Nafarroako Gobernuak. Iaz mingain urdinaren gaitzarekin debe-



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Helipuertoa erabiltzeko prest

Edozein larrialditarako erabil liteke dagoeneko Artzan inguruan egin berri den helipuertoa. Materiala Udalak ordaindu du eta eskulana larrialdietarako herriko boluntario taldeak egin du.

katu zuten, baina berriz ere gisa guztietako aziendak ateratzen ahalko dira. Herri bazkarirako txartelak, berriz, dagoeneko salgai daude ohiko lekuetan, 21 eurotan.

Berdabioerentzat landaketak

Petrixenea, Haritzia-rra eta Deskarga para-jeetako landaketak Berdabio Basogintza S.L.k egingen ditu. Bederatzi eskaintza jaso ziren Herriko Etxean, eta haietatik zazpien arteko puntu berdinketa suertatu zenez, zozketa bidez hartu zuen Udalak erabakia pleguan adierazten zen modura. 116.227 eurotan esleitu zaizkio landaketak aipatutako enpresari.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Bi pilotari Errioxako txapelketan

Titin III.aren pilota eskolak antolatutako txapelketaren finalak Adarraga frontoian jokatu ziren hilaren 1ean. Eta bertan bi herritar: Julen Arozena eta Iker Salaberria. Ez zuten zapelrik herri-raztea lortu oraingoan, baina oso pozik zeuden biak torneon zehar egindako lanarekin.

ESKOLA BERRIA

Ile-apainketa, estetika

Erdi eta goi maila. Elierrek urteetan jendearen estilismoaren garapenean lan egin duen profesional taldea jarriko du zure esku.

Goza ezazu bere instalazio modemoekin eta zure garapen profesional eta pertsonalerako behar dituzun aholkuekin...

943 01 36 27

www.elier.eu • elier@elier.eu • ADUANA 27 IRUN

elier



ARESO

Auzo-bide, pista eta mendiko bideen ordenantza erregulatzaileria onartu du Udalak

Udalak uztail hondarrean onartutako ordenantza erreklamaziorik gabe jarri da indarrean

Juana Mari SAIZAR

Auzo-bide, pista eta mendiko bideen erabilera arautzen duen ordenantza onartu du Udalak. Araudi horretan, landa-bideak kategoriatan banatu dira, eta hainbat debeku ere finkatu dira. Uztailaren 30eko udalbatzarrean onartu zuen ordenantza eta abuztuaren 27an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Jendeari zabalik egon ondotik, eta erreklamaziorik egon ez dela ikusita, behin betikoz onartu du orain araudia.

KATEGORIATAN BANATUAK

Bi metro zabal edo gehiago duten bideak:

- *Auzo-bideak*: baserri multzo bakoitzera joateko bide nagusiak: Pedroenea borda, Santurua, Txuienea, Errandoneko borda, Polaineko borda, Elberreko borda eta Txiloeneara joateko bideak.

- *Abeltzaintzarako bideak*: borda eta baserrie-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Herriko hainbat bideren ordenantza berria onartu du Udalak.

tara sarbidea ematen duten pistak, auzoko bide nagusiak ez direnean: Belaku, Felipe borda eta Iruñegi baserrira eta Ahuntzenea, Eguarrea, Martiñenea eta Mañanea bordara joateko bideak.

- *Mendiko bide nagusiak*: garraiorako azpiegitura gehiena haietan bermatzen da. Urteagako pista eta Gorritiko bidea dira kategoriatan honetan daudenak.

- *Bigarren mailako men-*

diko bideak: neurri txikiagoan erabiltzen direnak dira: Gañarbe, Merku, Ulimendi eta Larrekoko bordako pistak.

- *Oihangintzako bideak*: basotik oihangintzako produktuak ateratzeko diren bideak.

- *Bidezidorrak*: denbora baterako irekidurak dira, lote jakin bateko oihangintzako produktuak ateratzeko direnak.

Bi metro zabal baino gutxiagoko bideak: Kategoriatan honetan, or-

gabide zaharrak eta bideak sartu dira, Goñegi-Ulimendi eta Ulimendi-Urtzurian bidexkak, adibidez.

Bestalde, debekatua egonen da pista ez diren lurretan motorra duten ibilgailuekin ibiltzea. Udalaren baimen berezia dutenak baino ezin izanen dira ibili. Gehienez, 25 kilometro orduko abiadura ibili ahalko da, eta araudia hautsiz gero, 150 euro arteko isunak paratuko dira.

Elizako lanak

Bukatzeaz daude elizako obrak. Urriaren 24an, herriko alaba bat, eliztarrak eta parrokiako partehartzaile garrantzitsua ezkontzen zela-eta, nahiko presaka azpiegitura lana gogorak bukatu ziren: teilatua berritu, harria garbitu eta aurrealde zurituta. Orain erretoala garbitu, eta argia, pintura eta zurarekin egin beharreko lan txiki batzuk falta dira. Eliza barreranean, berriz, zilarrezko bukaroak eta kandela-ontziak gurutzearekin batera garbitu dira eta batzuk uretan garbitu dira. Eskerrik beroenak han bildu diren guztiei. Dena prest egongo da, azaroaren 30ean artzapezpi-kuaren bisitarekin, egingo den sei gazteen sendotzarako. Elizaren inaurgurazioa ere egun horretan izango da. Gainera, aspaldiko partez elizako erlojua martxan jarri dute eta berri on bat izan da, izugarritzko falta sumatzen baitzen.

Martiko
Pol Zahar, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Martikorekin zuzen eta onartu

MARTIKO

DENDA
8.30etik
12.30era
14.30etik
17.00etara

Martikorekin
zuzen
sukatari.

Ibon Urtiaga
fisioterapia zentroa

- Masaje lasaigarria
- Elektroterapia
- Kirol masajea
- Bizkarreko mina
- Kirol eta lan lesioak

Tfno: **948 250 221**
606 266 077

Erietokieta kalea 9 behea. 31007. Iruña

Doneztebeko feriak 08

AZAROK 14

Lesakako feriak 08

AZAROK 19 • 20



Mendaur Motor

Leitzako errepidea • Tfnoa: 948 450 333 • DONEZTEBE





DONEZTEBEKO Gasolindegia

10 Gure urteurrena ospatzeko, denda berri dugu:

Eskaintza zabalagoa (ogia, janariak...)
 Eta nola ez, gure betiko zerbitzuak:

- Etxez-etxeko gasoil-zerbitzua
- Auto-garbitzaile automatikoa
- Presio bidezko garbiketa
- Autoaren barneko garbiketa

Leitza E., 49 • DONEZTEBE • T. 948 451 679 F. 948 450 857




SANTESTEBAN TAILERRAK



RENAULT

- Txapa, Mekanika eta elektrizitatea
- Kobxe berriak eta bigarren eskukoak
- Kobxe ia berrietan eskaintza zabala (6-12hilabeteko kobxeak): Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace
- ISO 9001 eta ISO 14001 duen tailerra

DONEZTEBE • Leitzako errep.
 Tfnoa: 948 450 282



KONTXA

Gasolindegia

- ✓ Deitu eta egun berean edo biharamunean etxera eramaten dugu
- ✓ Garraio-enpresetan depositoak jartzen ditugu

KONTXA

kafetegia

- ✓ Bokadiloak eta Platerak
- ✓ Ogi egin berria

Ongi pasa feriak!



Tel: 948 450 272 · Faxa: 948 450 810 · DONEZTEBE

Eta Elizondokoen ondotik

Doneztebeko feriak

Bidasoaldean, udazkeneko bigarren feria iraganen da ortziralean Donezteben. **Goizean, merkatuko plazan aziendak ikusteko eta erosteko aukera** izanen da. Lehen baino azienda guttiago izaten bada ere, eskerrak eskualdeko tratante batzuei, oraindik kalitatezko buruak ikus daitezke, batez ere behietan. Bordatxo zegoeneko aparkalekuan, nekazaritzako tresna berrienen erakusketa ikusgai izanen da marka handiko saltzaileen eskutik.

Azkenik, herriko karrketan barna ibiliz, bazterretan paratuko diren postuetan erosketak egiten ahalko dira. Ohi bezala hainbat gauzaren artean, elikagaiak ez dira faltako, hala nola, gasnak, ogia, ezitia, baraxuria eta kontserbak bertzeak bertze. Hala ere, azken urteek erakutsi dutenaren arabera, erosketak eta tratuak egiteko baino gehiago, jende artean egoteko eta ongi pasatzeko aukera pare gabea izanen dira Doneztebeko feriak.

HERRI KIROL JAIALDIA

Lagun artean bazkaldu ondotik, arratsalde partean herri kirolen jaialdia izanen da. Aurten ere Nafarroako Herri Kirol Federazioak **Nafarroako III.mailako aizkolari txapelketa** eta **Nafarroako II. mailako arpana txapelketa** antolatatu du. Aizkolarien eta arpanlarien saioen tartean, eskualdeko bi **harri-jasotzailek** erakustaldia eskaniko dute **Unai Bertiz** eta **Jose txo Urrutiak**. 17:30etik aitzinera izanen da eskolako gimnasioan. Xehetasun gehiago Kirolen ataleko orrialdeetan izanen duzu.



AROZENA OSTATUA
Gosariak eta bazkariak
Eguzki Eder, 3 DONEZTEBE Tfnoa:948450443

BIXEN ostatua
Babadi eta plino ezuek.
948 450 383 - DONEZTEBE

Nekazari Zerbitzuak
Nafarroako Herri Kirol Federazioak
Mungas, 29 - 31740 DONEZTEBE
Tfnoa/Fax: 948 45 18 45 Murgina: 910 25 85 85

PITTI
ESKABAZIOAK
Tfnoa: 616 513 491 • Ameztiá • DONEZTEBE

BERATARRA
ARGIÑAK
ONGI PASA FERIAK
Jose Ignacio MARITORENA LARRALDE
DONEZTEBE 670 489 337
Pedro BERASATEGI DAGERRE
BERA 617 346 378

CARNICERIA
Esarte
HARATEGIA
Jaime Urrutia, 35 • ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 128



Amezia, 7
 Ttxoa: 948 450 271
 DONEZTEBE
 ongi pasa feriak




**ALTZUNEA
 ERRETEGIA
 ITUREN**
 ONGI PASA FERIAK

Julia
 Gozotegia • Kafetegia



Nagusia, 10 • DONEZTEBE • 948 451 471

DIESEL
 THERMOMIXER




JUAN J. PIKABEA

- Arropa konfekzioak
- Senargaiantzako trajesak
- Gizonendako jostungintza
- Egindako trajetan aukera zabala
- Galtzak 70 neurria bitarte
- Atorrak 54 neurria bitarte
- Jertseak ere taila handiak

Lolo
 Pina Candy

Amezia z/g.
 DONEZTEBE
 948 451 070



P.J.M

Pedro J. Martin
 Azienda tratularia

kurbitzu azienda feria ikustera

948 450 042
 Martinenea etxea • DONEZTEBE

Doneztebarrak elkarte

Malerrekan erreferentzia izatea dute helburu



Eskualdeko lehenbizikoetarikoa izan zen Doneztebarrak Merkatarien Elkarteak eta egoerak hala eskatuta, bizitasun haundiarekin egin zituen lehen urratsak. 2006ko urtarrilean lehen hartu-emanak izan eta urte horretako maiatzerako elkarte lanean ari zen. Merkataritza aldetik indartsua izan da betidanik Doneztebe, Malerreka gainerako herri ttikien bilgune. Eta hala izaten segitzeko sortu zen Elkarte. Helburu horrekin dihardu oraindik ere, *“eskualdean erreferente izan eta jendea erosketak egitera kanpora joateko beharrik ez duela konturatzeko”*. Hori azpimarratu digu Elena Eraso Doneztebarrak Merkatarien Elkarteko lehendakari berriak.

Ez da Eraso hasieratik elkarteak izan duen lehendakaria. Bera berria da, duela sei hilabete izendatu baitzuten lehendakari, elkarteak bi urte egin zituenean eta zuzendaritza berria izendatzea tokatu zenean. Berarekin batera, Maite Ibarrola izendatu zuten lehendakariorde. Pilar Olalla ere berria da zuzendaritza batzordean, eta bera idazkaria da. Diruzaina, berriz, Resu Etxebeste da, eta Amaia Pikabea, Jesus Mari Ruiz, Maite Ostiz, Juan J. Pikabea eta Ainara Mendia dira gainerako batzordekideak. Horiek osatzen dute Doneztebarrak Merkatari Elkartearen Zuzendaritza Batzorde berria.

57 BAZKIDE DITUEN ELKARTEA

Duela bi urte baino bazkide gehiago ditu orain elkarteak, 57 guztira. Gainera, dendak ez ezik, tailerrak, ostatuak eta bertze hainbat zerbitzu ere biltzen ditu.

Bakoitzaren eguneroko lana desberdina izanta ere, helburu berak biltzen ditu guztiak: jendea herrian gelditzea nahi dute eta horretarako kalitatezko zerbitzua eskaintzen saiatzen dira. Izan ere, bertze merkatari elkarteetan bezala, merkataritza guneha haundiak eta jendeak erosketak egitera kanpora joateko duen ohitura dira Doneztebarrak elkartearen buruhausterik haundienak: *“inguruko jendea kanpora joaten da erosketak egitera, herriko komertzioen esfortzua baloratu gabe”*.



Horren ondorioz, herriko komertzioak itxi egiten dira eta horrek pobre uzten du herria". Elkarteko buruak argi du, herrian zenbat eta dena guttiago egon, orduan eta jende guttiago ibiltzen dela karriketean. Eta beraz, *"argitasun eta segurtasun guttiago dago"*, dio Erasok, *"bizitzarik ez herrietan"*.

Arraiozko merkataritza guneak zenbaiteraino arduratzen ote dituen galdetuta, Arraiozkoa bertze bat gehiago dela erantzun digu lehen-dakariak: *"Arraiozkoa proiektu sonatuagoa da, baina orain ere baditugu: Alcampo, Mendibil, Itaroa..."*.

URTE AKABERARI BEGIRA EGITASMO AUNITZ BURUAN

Udazkeneko kanpaina bukatu berria dute Doneztebarrak Merkatarien Elkartekoek, baina Eguberriei begira jarri dira. Hainbat kanpaina zehaztu dituzte dagoeneko:

Azaroak 14 - abenduak 2

Merkatarien Elkarteko bazkide diren establezimenduetan erostegatik Eguberrietan zabalduko den Txiki Parkerako 50 sarreraren zozketak parte hartzeko aukera izanen dute bezeroek.

Abenduak 4 - 22

Erosketa-txartelen kanpainari ekinen diote, bezeroek Eguberrietako erosketetan inberti dezaten. Erosketa-txartelen zozketa egingen da, bazkide diren establezimendu bakoitzeko txartel bana zozketatuz.

Abenduak 22 - urtarrilak 4

12-13 urte bitarteko neska-mutikoentzat Txiki Park jolas-parkea paratuko dute. Horretarako, udalaren eta herriko gainerako merkatarien laguntza ere jaso dute Doneztebarra elkartean.

Eguberrietan

Fatxada eta balkoien lehiaketa egingen da. Eguberrietako apaingarriekin dekoratutako etxe-aurralde edo balkoiek sartuko dira lehiaketan.

Bertzelakoak

Udalak erakusleihu lehiaketa ere proposatu du.

Azken bi kanpaina horietan, sariak erosketa-txartelak izanen dira, eta jendeak botoa eman beharko du parte hartzeko.

Kanpaina ugaria, baina nahia bakarra: *"ekimen hauekin haur zein helduengana iritsi nahi dugu, eta jendea Doneztebera etortzea espero dugu, herri honek komertzio eta jarduera andana eskaintzen dituela ikus dezaten, eta bide batez, gozatu ere egin daitekeela ohar daitezen"*.

Mendiburu
aziendak · tratantea

Ongi pasa feriak!!



Tfnoak:
608 676 221
948 450 084
DONEZTEBE

ERRINTZE

Aurtengo feriak umore ederrean pasatu



OSTATUA

Merkatarien karnikak 28
948 451826
DONEZTEBE

CTV

ALBAITARITZA ZENTRU TEKNIKOA

ONGI PASA FERIAK

Ibañeta Bideak, 16 - DONEZTEBE
Telefonoa 948 450 501

Mailposta Buzoneos

Publizitate banaketa
Inprimategia
Diseinu grafikoa

Alizugorea Etxea · 31793 NARBARTE (Nafarroa)

katalogoak kartelak
logotipoak kartazalak 948 592 313
tarjeta horri mutunak 886 747 713
pegatinak folioletoak 609 404 229

www.mailpostabuzoneos.com



Aukera ezazu **ttipi-ttapa** laguntzeko proiektua
can  **NAFARROAKO KUTXA**ren

**Zeuk aukeratzen duzu,
zeuk erabakitzen duzu**

Proiektu zka.: 14640

Ttipi-Ttaparen tresneria berritzeko laguntza

Aurrerakuntza teknologikoen gizarte osoa behartzen dute ekipamendu teknologikoen eta informatikoen galduta gabe berritzera. Fenomeno hori oraindik nabarmenagoa da TTIPi-TTAParen moduko lantegi ttiketetan, izan ere, gure eguneroko lanak zerikusi zuzena baitu informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriekin (IKTB). Hala, biziraupen teknologikoen aldeko ahaleginak buruhauste handiak sortzen dizkigu, ez baita batere erraza tresneria berriak erosteko beharrezkoak diren diruak bilatzea. TTIPi-TTAPak aldizkaria, telebista eta internet bidezko egunkari digitala kudeatzen ditu. Hiruen artean telebista da, zalantzarik gabe, inbertsioak egiteko premiarik handiena duena kontuan hartuz, batez ere, telebista analogikoa izatetik digitala izatera behartuak gaudela.

EDERKI

PEUGEOT AGENTE OFIZIALA



PEUGEOT



Grua zerbitzua 24 ordutan
Mekanika • Elektrizitatea • Txapa • Pintura
Hidraulikan espezialistak

Leitza errep. • DONEZTEBE • 948 450 525



Lesakako feriak

Asteazken eta ortzeguneko egitaraua

AZAROAK 19, asteazkena



- 17:00 musika eskolaren kontzertua
18:00 trikitilariak kalejira eginen dute
18:00 Beti Gaztek antolatutako **ajoiarriero txapelketari** hasiera emanen zaio. Bikote bakoitzak 2 kilo bakailao ekarri beharko ditu. Elkarrekin 40 euro emanen dizkio bikote bakoitzari. Bikote bakoitzak gas-sukaldea, kazula, zartagina eta behar dituen tresnak eraman beharko ditu. Antolakuntzak olio, baratxuriak eta gatza jarriko ditu bikote bakoitzarentako. Sariak sailkatutako lehendabiziko 3 bikoteei emanen zaizkie. Eta bukatzeko, proba ikustera hurbildu den jendea, lehiaketan parte hartu dutenek egindakoa dastatu ahal izanen dute. Lagungarri, ardoa eta ogia banatuko da. Apuntatu nahi duenak Beti Gaztera edo Lesakako Herri Etxera deitu beharko du (948 637 005) azaroaren 14a baino lehen.

AZAROAK 20, ortzeguna

Feria eguneko goiz osorako **artisans erakusketa** antolatu du San Fermin erretiratuen elkarteak.

- 11:00 **Aizkolariak**
Donato Larretxea...
ondotik **Bertsolariak**. Bertso eskolak antolatuta Xebaxtian Lizaso Jexux Mari Irazu
17:30 Aspeko pilotari profesionalen arteko **pilota partidak** pilotalekuan.
19:00 **Dantzaldia**
TZ taldearekin
Plaza Zaharrean.



Dia % Lesakako ferietan otordu goxoak prestatzeko
LESAKA
Dia % Plaza Berria, 10 - 948 637 335

IÑAKI janaridenda
FERIA EDERRIAK PASA!!
Arretxe, 12 - 948 638 287 - LESAKA

PASTELERIA **HAIZEA** BOLLERIA
CAFETERIA
Tel: 948 638 036
Plaza Zaharra, 7
31170 LESAKA

ibai-ondo janaridenda
Antzu karrika
Tel: 948 637 040
LESAKA

TRANS TXAKAIN
TRANSKONKAINA LE JESU LAZARIBERRI ALEGIARAKI
ONGI PASA FERIAK
Otsango industrialdea 14 nabea - LESAKA
☎ 948 638 052 - 669 840 198
Fax: 948 627 578 - transtxakain@gahoo.es

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- % Langile autonomoak
- % Nekazariak eta mendi langileak
- % Nominak eta Aseguro Sozialak
- % Lan-Kontratutarako laguntzak
- % Enpresa berri ezberdinen sortzea
- % Diru-laguntza ezberdinak
- % Kontabilitateak
- % IVA eta IRPF
- % Errenta aliorpenak
- % Eibarritasun eta jubilazio espedienteak
- % Bidegaitasun planak eta aumekontuak


artekari@artekari.com

LEZAMA: Bittio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 404
BUNIAITA: La Vito, 4 - Tel: 948 133 326 - Fax: 948 133 713



lesaka
autoeskola

Abetxur 39 H • 31770 Lesaka
Mugikorra: 948 638 163
Telefonoa: 948 637 870
Faxa: 948 638 153



Txalari-Mantelariak-Oheko mandriak
Eskolako haurren mantelak etab.
bortatzen ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta bulego
peña bakoitzaren logotipo eta izenkin
bortatzen ditugu. *Ongi pasa feriak*

Don Pl. Berme 4 eta 6ko lekuko erakundea!!! Tel: 948 637 640 - 481 481 900

XATURETXEA



ONGI PASA FERIAK

Telefonoa: 948 637 027
LESAKA



TALLERES FRAIN

LESAKA - Tel.: 948 637 525 **ONGI PASA FERIAK**

izarra
okindegia



Tel: 948 637 855
Plaza Zaharra, 13 - LESAKA

ONGI PASA FERIAK!



intzuri
OPTIKA

Naiara Alberro Retegi
Optiko-Optometrista

ikusmenaren azterketa,
begi tentsioaren neurketa
lentilen egokitzea,
lenerako babes
bataurrakoak, ...

| Bittoria 36 | LESAKA |
| t: 948.627550 |

Lesakako Merkataritza eta Zerbitzuen Elkarteak Bi urte herria bizirik mantentzeko lanean



"Herria bizirik mantendu; norbere negozioan segitzeko motibazioa indartzea; prestakuntza eta informazio gehiago edukitzea eta sortzen diren arazoak elkarrekin aitzin egitea". Lau helburu eta elkarte bakarra. Duela bi urte sortu zen Lesakako Zerbitzuen Elkarteak, eta hasiera-hasieratik horietatik izan dira finkatu dituzten helburuak. 2006ko azaroan hasi ziren elkartzen eta hilabete batzuk beranduago eman zuten ezagutzera. Geroztik hainbat ekimen garatu dituzte. Buruhaustea ere ugari, eta guztien gaineratik bat: Landazelaietan egiteko zen merkataritza gunea haundiaren proiektua.

Hilabeteetako borroka, halere, badirudi fruitua eman duela. Herriko Etxetik hartu dituzten azken berrien arabera, Udalak ezezkoa eman dio merkataritza gunea eraikitzekeo egitasmoari. Horrek, lasaitasuna eman dio Lesakako Zerbitzuen Elkarteari.

Buruhausteez haratago, Elkarteak pozik dago egin dituen kanpainekin. Hil honetan berrituko da Lesakako Zerbitzuen Elkartekeo zuzendaritza batzordea, baina bitartean lehendakaria den Maite Igarzabali balorazioa egin digu: *"Alde batetik, kontent gaudu elkar gehiago ezagutu dugulako. Bertzela, norbera bere gisara joanen litzateke, eta honen bidez, harremana hobetu dugu. Bertzetik, egiten saiatu garen ekimenak ongi joan dira. Landazelaietako arazo hori sortu zenean elkarrekin egotea ere hagitz ona izan zen, bertzela, bakoitzak bere negozioa itxi eta etxera joan beharko genukeelako".* Hori alde ona. Baina deus ere ez da perfektua eta taldean lan egiteak alde negatiborik ote duen galde-tuta zera erantzun digu Maitek: *"inplikazioa eta denbora falta. Inplikazioa 'arazoa' da, herriko negozio guztiak ez daudelako Elkarteak. Eta denbora falta ere 'arazoa' da, asanblada bidez funtzionatzen delako, eta Elkarteak dauden bazkide guztiak biltzea 'zaila' delako".*



ZUZENDARITZA BERRIA


Bi urteren ondoren, zuzendaritza batzordea berritu egingen dute hilabete honetan Lesakako Zerbitzuen Elkarteak. Urtean 120 euroko kuota ordaintzen dute 34 bazkideek, baina kopuru horrek gauza aunitz egiteko aukerarik ez duela ematen azpimarratu digu lehendakariak: *"Nafarroako Gobernuaren laguntzarik ez dugu eta edozein kanpainan egiteko paratu behar dugun diru kopurua ez da ttikia. Diru gehiago izatera, gauza gehiago egingen genituzke".*

URTE GOGORRA AURTENGOA

"Urte gogorra tokatu zaigu". Holaxe deskribatu du Maitek 2008a. Alde batetik, *"guztiari forma eman ahal izateko, hasiera guztiak beti dira gogorak"*, eta batez ere, urte gogor horren giblean dagoena, Landazelaietan egitekoa zen merkataritza gunea dago. Bilkurak maiz egitera behartu ditu Landazelaietako proiektuak, eta prentsaurrekoak eta bertze kanpainak ere egin dituzte, baita plataforma bat sortu ere.

"Horrelako merkataritza gune batek herriari ez lioke batere mesederik eginen", dio Igarzabalek. Baina amesgaizto hori joan da. *"Udalak berririk baldin bazen, jakinaraziko zigula erran zigun, eta uztailekoak dira azken nobledeak. Orduan Udalak proiektuari ezezkoa eman ziola adierazi zigun eta horrek lasaitasun haundia eman zigun"*.

Orain, berriz, egunerokoari lotu eta bezeroei ahalik eta zerbizturik onena eskaintzea da helburu nagusia: *"herritarrei Lesakatik atera gabe, hemen ere gauzak harrapatzen ahal dituela adierazi nahi diegu"*. Eta guztiaren gainetik, ilusioa edukitzea ezinbertzekoa da.



EGUBERRIETAN KANPAINA BEREZIA



Erakusleihu lehiaketa, Kontsumitzaileen Eguna, erosketa poltsak, tailerrak, ikastaroak... Bi urte emankor izan direlakoan dago Elkarteko lehendakaria. *"Joan den urtean Kontsumitzaileen Eguna egin genuen, eta aste hori hagitz intentsoa*

izan zen. Giro polita sortu zen herrian eta jende aunitzek parte hartu zuen". Ilusioa eman zien horrek Elkarteko kideei. Azken kanpaina erosketa poltsarena izan da. Eta horren arrazoia? *"Ingurumenarekin konprometituak gaudelako gu ere, eta herritarrek mentalizatu nahi ditugulako poltsak behin eta berriz erabil ditzaten"*. Egin dituzten ikastaroek ere erantzun ona izan dute eta horrek jendea ilusioarekin dagoela adierazteko balio du Igarzabalen arabera. Eguberriei begira, kanpaina bereziren bat garatu nahiko lukete.

ETXEBERRIA OSTATUA

Plaza Zaharra, 21
Tfnok: 948 637 700 · LESAKA



Ferietako Erreportajea
azaroaren 20an
20:30ean
ttipi-ttapa



oreka

nutrizioa eta dietetika
santura, begaketa, masa,
dieta eta nutrizioari aplikatuta

dieta pertsonalizatuak

produktu ekologikoak
kosmetika naturala
sendabelarrak
elikadura

T 948 63 73 73
Arretxea 7 · 31770 LESAKA
orekanutrizio@tfforنال.com



KASINO OSTATUA - RESTAURANTE



jai alai eta
pozgarriak
izan itzazuen

Plaza Zaharra · 948 63 72 87
LESAKA

LEITZA

Zubitur zinegotziak eta Urkiola alderdikideak UPN utzi eta PPra pasatzea erabaki dute

Goiko aginduen zain, Zubiturrek zinegotzi izaten segituko du

ttipi-ttapa

UPN eta PPren arteko ituna hautsi eta gero hainbat izan dira UPN alderdia utzi eta Alderdi Popularrera pasatu direnak, PPK alderdia sortzeko asmoa baitu Nafarroan. UPNk Estatuko Aurrekontu Orokorretan PPrekin batera ez bozkatu izanak eragin du 17 urteko itunaren haustura. Leitzako UPNren zerrendan ere aldaketak izan dira eta oraingoz PPra igaro direnak Silvestre Zubitur zinegotzia eta UPNren herriko zerrendan laugarren aurkeztu zen Pello Urkiola dira.

«LEHENGO ITURRIRA»

Silvestrek azaroaren 2an hartu zuen erabakia UPN uzteko erabakia: «*PPtik deitu zidaten berriz PPra pasatu nahi ote nuen galdetuz, eta nik baietz. Ni PPtik etorri nintzen UPNera biek bat egin zutenean, eta beraz, erabaki honekin lehengo iturrira bueltatu naiz*». Hala azaldu dio zinegotziak ttipi-ttapari eta hausturaren atzean UPN dagoela iritzi dio: «*berriak jakingo dute zer-*

gatik hartu duten erabakia, baina nik nahiago nuke elkarririk ibili beharrean, berriz elkartuko balira». Lerro hauek idazterakoan, Zubitur goitik etorriko den erabakiaren zain zegoen, eta bitartean zinegotzi karguarekin segituko du.

Kantu-jira

Herriko kantuzale talde batek bultzatuta, Kantu-jira izeneko ekimena abiatuko da ostiral honetan. Beste zenbait herritan arrakasta handiz egiten ari den ekimena da, eta Leitzan ere saikera egin nahi dute: kantuzaleak elkartu eta kantatzen ari.

Euskal kante osatzen dute erreperitorioa, eta kantatzeko zaletasuna duen edonork parte har dezake. Musikariren batek lagunduta ariko dira, eta ziur asko hilean behin elkartuko dira kalean, tabernan edo elkarteetan abesteko. Lehendabiziko hitzordua ostiral honetan, azaroak 14, eginen dute, 19:30ean, Aurrera elkartearen. Ekimena irekia denez, nahi duten guztiak joan daitezke hitzordura.



UTZITAKO ARGAZKIA

Lanean jarraitzen dute Aurrerako pilotariak

Txapelketa batzuk bukatu orduko besteetan izena eman, eta lanean jarraitzen dute Aurrera Pilota Eskolako kirolariak. Txapelketa horietatik garaipenak ekarri dituzte, hala nola, urrian lortutako Gartzarongo txapela; beste batzuetan, berriz, azpitxapeldun gelditu izan dira, eta finalaren atarian gelditu beste alditan. Orain momentuan, txapelketa hauetan ari dira Aurrerakoak: Nafarroako Jolasetan benjamin, alebin, infantil eta kadeteen mailan; Burlatako eta Irurtzango txapelketetan... Horietako batean, son handia duen Errioxako txapelketan, txapela eskuratzeko azken ahaleginean gelditu ziren Aurrerakoak. Azaroaren 1ean Logroñon jokatutako finaletan, alebinetan, Sagastibeltza Lasartek Errioxako Petite pilotaria izan zuen atzean eta 12 eta 18 galdu zuten Egiguren eta Irribarria gipuzkoarren kontra. Kadeteetan, berriz, 14 eta 22 galdu zuten Arozenak eta Gonzalezek Hernan eta Artolaren kontra. Biak ere partida onak izan ziren baina garaipenik gabe gelditu ziren. Argazkian pilotariak eta txapelketako antolatzaileak ageri dira. Tartean da Augusto Ibañez Titin III.a pilotari handia ere.

Zine emanaldiak asteburuan

Aste honetan abiatuko du herriko zinemark denboraldi berria. Aurreko urteetan bezala, ostiral eta igandetan eskainiko ditu filmak, 22:30ean ostiralean eta 19:30ean igandetan. Sarrera bost eurokoa izanen da.

Asteburu honi begira, ostiralean, azaroak 14, eta igandean, azaroak 16, *Antes de que el diablo sepa que has muerto* filma ikusteko aukera izanen da. Sidney Lumetzuzendariaren filma da.

Hurrengo asteburuan, azaroaren 21ean eta 23an, Fatih Akin zuzendariaren *Al otro lado* egonen da ikusgai.

Azaroaren azken asteburuan, berriz, 28an

eta 30ean *Che, el argentino* film ezaguna ikusteko modua izanen da. Steven Soderbergh zuzendariarena da.

Jardunaldi informatiboa

Nafarroako Gobernuak merkataritzako lehiakortasuna eta kalitatea hobetzeko dirulaguntza berriak onartu dituela eta, horri buruzko jardunaldi informatiboa antolatu du Cederna-Garalar Elkarteak, Gobernuak eta Udalak lagunduta. Azaroaren 20an izanen da Herriko Etxean, 20:15ean.

Izena eman edo informazio gehiagorako 948 625122 telefonora deitu (Begoña), edo bestela, helbide honetara idatzi: *bidasoa.admon@cederna.es*.

ARANO

Gustura elkartu dira emakumeak

Kontxi KLABER

Urriko azken larunbatean herriko 18 emakume soziedadean elkartu ziren afaltzeko. Egun jakinarekin izaten da afaria, eta orduaren aldaketa ederki aprobetxatuz, bati baino gehiagori lasaitasuna eman zion horrek. Afalostean kartak atera eta txintxonean eta musean aritu ziren. Museko txapelkunak M^a Jesus eta Inaxi izan ziren.

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa • saneamendua • gasa
Telefonoa: 948 510 066 • 948 510 156
Faxa: 948 510 856
LEITZA

EUSKARA

Euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatuz manifestazioa azaroaren 22an Iruñean

Horrez gain, manifestu bat ere aurkeztu eta horren aldeko sinadura bilketa abiatu dute

t tipi-ttapa

Euskaraz bizitzeko eskubidearen alde, ofizialtasuna orain Aelopezan manifestazioa deitu dute Nafarroako hainbat herritarrek azaroaren 22rako. Iruñean izan da, eta Golem zinematik abiatuko da 17:00etan. Nafarroa osoan euskararen ofizialtasunaren aldeko manifestua aurkeztu zuten egunean deitu zuten manifestazioa herritarrek.

Dagoeneko 30 laguneko talde batek sinatu du aipatu manifestua, eta tartean, euskara teknikariak, unibertsitateko irakasleak, sindikalistak, kirolariak, euskaltzaleak, bertsolariak eta abar daude. Egun Nafarroan euskararen inguruan dagoen hizkuntza politika eta hori biltzen duen legea kritikatzan dira manifestuan, baita euskaraz bizitzeko Nafarroan dagoen ezintasuna ere:

«euskaraz ikasteko ezintasuna, isunak, euskararentzako dirulaguntzen murrizketa, administrazioarekin harremanak euskaraz izateko trabak... orriak eta orriak betetzeko adina eskubide urraketa gertatu dira Euskararen Legea onartu zenetik». Manifestu horren aldeko atxikimendua bildu nahi dute, eta hala, *«euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatu nahi duten guz-*



UTZITAKO ARGAZKIA

Herritarrek manifestazioa aurkeztu zuten egunean.

tiei deia egiten diegu manifestuarekin bat egin eta manifestaziora joan daitezela».

Lasao

• egurrezko altzaria

Fabrikako prezioetan zure etxera
Gaztainondo, gereziko eta hantzezko altzariak
Gaurko diseinu eta kolore berriak, beti egurrean

Lasao Industrialdea • AZPEITIA
tel. 943 15 11 82 • informacion@lasao.com

www.lasao.com

BAZTAN

Ornoz-Mugairiko larrialdietarako kontsulta ixteko asmoa du Osasunbideak

Hala balitz, baztandar guztiek Elizondora joan beharko lukete larrialdi kasuetan

Maite OTEIZA

Nafarroan dagoen medikuen eskasiaren arazoaz jabetu garenean, bertze arazo bat dakarkigute orain Osasunbideko nagusiek. Baztanen, arratsalde eta gauetz, larrialdietarako bi zentro ditugu: Elizondoko eta Ornozen. Baina baliteke berri hau irakurtzerakoan bakarra izatea.

Baztan Nafarroako udalerririk haundiena da: 377 km²tan 8.000 biztanle inguru ditu, 15 herri, sakabanaturik dauden baserri aunitz. Bada, orain larrialdietarako Ornozko kontsultegia desagerrarazteko arriskua dago. Hala, Baztan osorako puntu bakarra geldituko litzateke, Elizondokoa, alegia. Erabaki horrek ondorio larriak ekarriko litzuke.

Nafarroako Gobernuan egiten ari diren zerbitzu murrizketak, dagoeneko nabariak dira gure eguneroko bizitzan, hezkuntzan, euskaran, osasunean, ... Bi larrialdieta-

rako zerbitzuren bat desagertatzekotan, herritarrek arretarik gabe geldituko ziratekeen Ornozen. Azken finean, mediku bat eta erizain bat bi lekutan ezin direlako egon. Kasu horretan, nori eskatu beharko genioke ardura? Medikue eta erizainari? Ez, euren es-

kuetan dagoen guztia egiten ari baitira. Beraz, Osasunbideari? Herritarrok *aski da!* erran beharko genuke, kexak eta kezak ozenki adieraziz.

Euskara eta ingelesa batera

Perez-Nievas Nafarroako Gobernuko Hez-

kuntzako kontseilariak Parlamentuan ezagutzera eman duenez, 2009/2010 ikasturtean, euskaldun eremuan euskara eta ingelesaren eredu ezarriko duen lehen ikastetxea Elizondoko San Francisco Javierizana da. Eskolako zuzendaritzak Iruñean bilkura

izan zuen, baina ez zuen informazio aunitzirik eskuratu, Iruñean ere ez dakitelako eredu berri hau nola ezarri.

Errandakoak kezka sortu du, euskarak jasoko duen tratua eta eragina dela-eta. Kontseilariaren hitzetan, Nafarroan hemendik aitzinera ez dira eredu bakarrak ezarriko eta ingelesarekin batera jarriko dira.

Telebista digitalari buruz informazioa

2010. urterako iragarri duten itzalaldi analogikoarekin, telebista analogikoa desagertu egingen da eta seinale digitalarekin emitituko dira telebista guztiak. Horren harira, LTD Lurreko Telebista Digitalari buruzko informazioa eskainiz, karpa ibiltari bat herriz herri dabil Nafarroan. Elizondora hilaren 21ean ailegatu da. Hitzaldiak eta bertze ekimenak landuko dira LTDaz herritarrek gehiago jakin dezaten.



ARGAZKIA: JOSUNE ITURZAETA

Jaime Urrutia karrikako lanak hasi dira

Dagoneko hasi dira Elizondoko Jaime Urrutia karrikako lanak, eta bertze aldaketarik ezean, urtea bukatzerako karrika espaloien altuerara igoko dute. Oinezkoentzako eta autoentzako bidea izaten segituko du, baina oztopo arkitektonikorik gabe. Horretarako laguntza jaso zuen Udalak eta 96.683,96 eurotan esleitu zituen lanak.

STIHL VIKING

Banatzale ofiziala



SEA

www.sea-si.com

Mutloabell, 12 H 101 Ind.
31192 MULOABEITI (Nafarroa)
e.posta: maquinaria@sea-si.com
Tfnos: 948 24 90 00 - 948 23 92 36
Fax: 948 24 12 14

**ERAIKUNTZA MATERIAL
ETA TRESNERIAREN
SALMENTA ETA ALOKAIRUA**



Alokairua, salmenta eta zerbitzu teknikoa

KUPOI HAU AURKEZTUZ GERO, EROSKETAGATIK STILH OPARI ESCLUSIBOA ZURETZAT

BAZTAN

Arraiozko merkataritza-gunearen proiektuari alegazioak aurkezteko epea zabalik dago

Azaroaren 20an akituko da horretarako aukera

ttipi-ttapa

Urtel S.L. enpresak Arraiozen egin nahi duen merkataritza-gunea dela-eta, lanean hasteko lizentzia eskaera egin dio Udalari. Hala, Udalak jendaurrean paratu du proposamena obrarekin kalteuak izan daitezkeen alegazioak aurkez ditzaten. Azaroaren 3an argitaratu zen iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta geroztik 15 egun balioduneko epea dago proposamenari alegazioak aurkezteko. Beraz, azaroaren 20an akituko da alegazioak aurkezteko emandako epea.

Merkatarientzako jardunaldiak

Cedema-Garalur Elkarteak 2008 eta 2011ra begira merkataritzako kalitatea eta lehiakortasuna hobetzeko jardunaldia antolatu du, Nafarroako Gobernuaren eta Udalaren laguntzarekin. Gobernuak lehiakortasuna eta kalitatea hobetzeko laguntza berriak onartu

ditu, eta subentzio horie buruzko jardunaldi informatiboa izanen da. Azaroaren 27an izanen da Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean, 15:00etan. Nafarroako Gobernuo merkataritzako zerbitzuen ataleko burua den Maite Dominguezek emanen du hitzaldia. Izena emateko edo infor-

mazio gehiago jasetzeko telefono honetara deidaiteke: 948 625 122 (Begoña). Edo bertzela, helbide honetara idatzi: *bidasoa.admon@cederna.es*.

'Folk ametsetan' Arizkunenean

Folk ametsetan izeneko ekimenean parte

hartuko du aurten ere Udalak, Nafarroako bertze borts Herriko Etxerkin batera. Guztira 44.466 euroko aurrekontuari eginen diote aitzin, eta Vianako Printzea Institutuak %38 subentzionatuko du. Hungaria, Irlanda eta Euskal Herriko musika doinuak aditzeko aukera izanen da.

Baztanen, itzulia hilaren 9an hasi zen. Irlandatik etorritako O'Carolan taldeak euren herriko doinuak eskaini zizkien Arizkunenean hurbildu zirenei. Bertze bi hitzordu ere eginen dira eta horietako bat igande honetan, azaroak 16, izanen da. Errumaniako lurretan bizi diren Zurgo etnia talde hungariarrak hango doinuak eskainiko ditu. Azkenik, hilaren 23an, Lantz talde euskaldunaren txanda izanen da. Saioguztiak Arizkunenean izanen dira.

15 herrietako berri bila

Baztanen dauden 15 herrietako berri guztiak jaso eta kronika osatua goa egiteko asmoz, zuen herri, elkarte edo inguruan berriren bat sortuz gero, horren berri ematea eskertuko genizueke. Beraz, zerbaitzanez gero, bidali mezua *info@ttipi.net* helbidera. Bertzela, deitu 948 635458 telefonora.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ikastolako pottokaren zozketa
Bertze urte batez, Baztan Ikastolak pottoka bat zozketatu zuen Elizondoko ferien egunean. Bada, aurtengo zenbaki saritua 1.915 izan da eta zenbakiaren jabeak Ikastolarekin jarri beharko du harremanetan.

ITURRALDE
pvc & aluminio

☎ 667 264 025 • 948 581 967
✉ maxone@terra.es

Eskisaroi
Jatetxea

Jaime Urutia
Tfn: 948 580 013
ELIZONDO

SOULE
hizta artea

Tfn: 948 432 444
Mop: 948 432 444

ANXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braño iriatse karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

URDAZUBI

Kantu Zaharren Egunaren V. edizioa azaroaren 29an egingen da Dantxarinean

Txartelak 50 eurotan daude Dantxarinean, Sunbillan eta Elizondon

ttipi-ttapa

Aitzineko edizioetan izan duen erantzun ona ikusita, aurtengo ere ez du hutsik egin Angel Mariezkurrena Sunbillan bizitako eratsundarrak: azaroaren 29rako Kantu Zaharren Eguna antolatu du. Azken hiru urteotan bezala, Dantxarineako Benta Peion egingen da, Lugarana jatetxean.

Kantua euskal kulturaren zati garrantzitsua eta oraindik zabaldua dagoen ohitura delako, Angel Mariezkurrenak egun osoko egitaraua antolatu du: 14:00etan bildu eta bazkaria egingen da. Bazkalondoa, mahainguruan kantu zaharrak kantatzen ariko dira. 20:00etan berendu-afaria egingen da. Eguna horretarako espresuki kan-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Lugarana jatetxean bildu ziren 350 lagun inguruk giro ederrean igaro zuten joan den urteko Kantu Zaharren Eguna.

tu zaharrekin egindako liburuxkak ere banatuko dira, eta Mariezkurrenak aipatu digunez, aurtengo alean 140 abesti jasotzitu. Gainera dohainik banatuko dira.

Egun horretan par-

te hartzeko aitzinetik hartu behar dira txartelak. Azaroaren 2az geroztik salgai daude, eta lehenbailehen eskuratzeko gomendatu digu antolatzaileak: «Euskal Herri guzitik etortzen da

jendea eta joan den urtean 15 egunetan denak saldu ziren». Txartelak Dantxarineako Benta Peio harategian (948 599400), Sunbillako Iturburu ostatuan (948 451703) eta Eli-

zondoko Antxitonea trinketean (948 581807) egonen dira. 50 euro balio dute eta prezio horren barne bazkaria eta berendu-afaria sartzen dira. 300 txartela paratu dituzte salgai, baina horrez gain, euskal kantugintzako gonbidatu bereziak ere bilduko dira. Aitzineko aldietan, Amaia Zubiria, Pantxoa eta Peio, Jaione Olazabal... hurbildu izan dira.

AUTOBUSA AUKERAN

Autobusa ere paratuko da, 10 eurotan. Sunbillatik 11:45 aldera aterako da eta Dantxarineara ailegatu aitzinetik, Doneztebe, Oronoz-Mugairi, Irurita, Elizondo eta Arizkun eta Erratzuko bidegurutzan egingen du geldialdia.

POTTOKI
Baitanbert Plaza, 3 - beheak
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnoa: 948 581 863
info@pottoki.com
www.pottoki.com
Astelerozetik larunbatara:
8:30 - 13:30
16:30 - 20:00

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki tipikoak - Itxeko giroa
Berrituz auzoa - Tfnoa: 948 562 043
ORONOZ - MUGAIRI

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA
300m perfume markarik ezagunerekin, usain onak, kosmetikoak...
Euskal Herriko preziorik hoberenak
EGUNERO IREKIA
Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI

ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
Pantien egindako haragi eta arrainak
Tel: 948 453 410 Fax: 948 453 378 - ARIZKUN

KULTURA

Iparraldeko Bertsulari Xapelketako finala larunbatean Donibane Lohizunen

Jai Alai pilotalekuan izanen da, 17:00etatik aitzinera



ttipi-ttapa

Hiru kanporaketetan lehia ibili diren 16 bertsolarietatik zortzi ariko dira igande honetan, azaroak 15, Donibane Lohizunen jokatu den lehendabiziko Iparraldeko Bertsulari Xapelketaren finala.

Donibane Garazin egin zen lehendabiziko kanporaketatik **Sustrai Colina** urruñarra eta **Maddalen Arzallus** hendaiarra zuzenean sailkatu ziren finalera, puntuazio berdinarekin; Luhuson egindako bigarren saiotik **Ametz Arzallus** hendaiarra eta **Karlos Aizpuru**a saratarra pasatu ziren zuzenean finalera eta Urdiñarbeko finalurrekotiko lehenbiziko sailkatuak, eta beraz, finalerako txartela eskuratu zutenak, **Odei Barroso** urruñarra eta **Miren Artetxe** hendaiarra izan ziren. Zortzikotea osatzeko falta ziren bertsulariak hiru kanporaketetan puntu gehien lortu zituzten bertze biak dira: **Xumai Murua** azkaindarra eta **Ekhi Erramundegi** baionarra. Dena den, aipatu, Erramundegik Mixel Aire *Xalbador II.a* urepeldarraren puntu berdina jaso zituela, baina araudiaren arabera, Erramundegi pasatu zen finalera.

Zortzi bertsulariok Donibane Lohizuneko Jai Alai pilotalekuan izanen dira igande honetan. 17:00etan hasiko da finala.


Rural Kutxaren Aurrezkia & Oparia

Zaintzea da Oparirik Onena

Zure ageriko aurrezki kontuan 2.000 euro sartzeagatik soilik, edo oraindik Rural Kutxako bezeroa ez bazara, kopuru berarekin kontu bat irekitzeagatik, honako hiru opari praktiko hauetako bat eramateko aukera izanen duzu:


Hiru piezako set dimentsioa:
24 cmko altzesa,
taparekin eta 24 cmko burrun-altzesa

- Irnako lodiera duen gorputza.
- Berria hedatzen duen 6 mmko hondoa.
- Barnean hondoko diskoa aluminiozkoa, 5mmkoa.
- Kanpoko skabera ipilki / satinetuan.
- Bero iturri guttiatarako balagarrin, indakziozkoa barne.




Hiru unibertsitateko jantziak
DEVOTAZIOHBA:
1.100 bostolatuak 300g/m²

- Apain-mahakoa: 30 x 50 cm.
- Garbionzailak: 50 x 100 cm.
- Barukoa: 100 x 140 cm.




PLAID TERMIKOA

- Manta termikoa.
- 135 x 170 cm.
- Melokotoi azala duen estalki eta oihalezekin.



nire aukera



Banako inbultzetatik eta helbiderabatutako diru-eremutik ez dira hartzen hartuko. Diru-eremutik ageriko kontu korronte, diru-funtse eta finantzia-erabileren aldetik ezin guztiekiko 2.000 euroko gehienez izan behar du 2008/11/15ean zuzeneko salbidea erreferentziatutako hartza. Hiru opari gehienez ere familia unitate bakoitzeko. Ekarpena horiek 2008ko azararen 29a bitartean egin behar da, baina ezin izango da berrikotzeko.

WWW.RURALKUTXA.COM
Tel: 902 319 992

ZUGARRAMURDI

Ikastaroak, kantuak eta bertsoak sorgin ihiziaren ospakizunen harira

Kantu eta bertso saioetara joateko sarrerak aitzinetik hartu behar dira

Koro eta Margari

Aitzineko aleetan iragarri bezala, sorgin ihizari buruzko hainbat ekitaldi egingen dira hilabete honen hondarreko asteburuan. Dagoeneko egitaraua zehaztua dago:

Larunbata, hazilak 29

- Goizean eta arratsaldean. *Sendabellarrei buruzko ikastaroa* egingen da, Arantxa Zubietaren eskutik. Dohainik izanen da, eta izena ahal bezain fite eman behar da telefono honetarat deituta: (0034) 948 599229. Goizean ibilaldi tiki bat egingen da belarrak ezagutu eta biltzeko eta arratsaldean ukendu bat prestatuko da Akelarrean.

- 20:00etan Museoan. *Musika - kantu- olerki emanaldia. Harresi ostean pareta*. Ekitaldi hau Koldo Izagirre, Joseba Tapia,

Carles Belda eta Toni Strubellek eskainia izanen da. Parte hartu ahal izateko, sarrerak aitzinetik bortz eurotan salduko dira Marixan ostatuan.

Igandea, hazilak 30

Sorginen ihizari bu-

ruzko *bertso emanaldia*.

- 17:00etan herriko eskolako haurrek prestatutako bertsoen emanaldia izanen da Sorginen Museoan.
- Ondotik, bertso trama: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus,

Igor Elortza eta Unai Elorriaga bertsolariekin. Tramagileak Estitxu Arozena eta Ellande Alfaro izanen dira.

Sarrerak aitzinetik hartu behar direnez, Marixan ostatuan egonen dira salgai.



ARGAZKIA: KORO ETA MARGARI

Zugarramurdi barne barnetik erakusten duen DVDa
Zugarramurdi barne barnetik DVDa-ren ikustaldia eskaini zen azaroaren 7an Sorginen Museoan. DVD hau Galdare produktorak ETBrentzako grabatutakoa da eta bere Barne Barnetik programan telebistaz eman zuen azaroaren 1ean. Dena den, oraindik ikusi ez duenarentzat, jakin salgai dagoela Museoan. Argazkian 2007ko abenduan ETBrako egindako Akelarre antzerkiko irudia ageri da. *Zugarramurdi barne barnetik* DVDan ere ikus daiteke.

LANA

Langabezia %13,4 igo da irailetik urrira

ttipi-ttapa

Langabeziak nabarmen goiti egin du eskualdean urrian, %13,37. Irail hondarrean baino 79 langabetu gehiagok emana zuten izena Doneztebeko Enplegu Bulegoan urriaren 31n. Urri hondarrean 670 ziren izena emandako langabetuak, eta irail hondarrean 591. Nafarroa osoko bulego guzietan goiti egin du langabeziak, baina Doneztebekoa izan da hirugarren igoerarik haundiena. Doneztebeko bulegoaren bitartez 522 kontratu egin ziren urrian, baina horietatik 87 bakarrik izan ziren mugagabeak. Adina, sexuari eta lan arloei dagokionez, tarte guzietan goiti egin du langabeziak. 25 urtetik goitiko emakumeak eta zerbitzuen arloa dira langabezia gehien jasaten dutenak.

BURKAITZEA
- ostati
- erretegia
Zugarramurdi bidea, 3 km
948 599 280 - URDAZUBI

HELEBINO ETXENGO
EDENTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542319
Maitzen eta Yérongoak
SARA

MONTXO OSTATUA
Dantzarineatik 2 km-tara
ТІВЛКО-ДЕНДІ
АНЗАН-БОРДІ - УРДАЗУВІ
Egutero irekia 10:30etik 02:30era

ZOANSA
SEAT
VW
HYUNDAI
AUDI
MARKA GUZIEN KONPONKETA
Benarta, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

SARA

Ondoko asteburuan ospatuko dituzte Santa Katalinak Baratxartean

Karlos Aizpurua Ipar Euskal Herriko bertsu txapelketaren finalean ariko da larunbatean

Xan HARRIAGUE

Hazilaren 25a aste tarte izaki, Santa Katalinak aitzineko asteburuan ospatuko dituzte sailduaren izeneko auzoan eta Ithalarren.

Larunbatean, hila-betearen 22an, tripotx jatea izanen da Baratxartean, eta bihar-munean meza eginen da Santa Katalineko kapelan, 10:30ean. Ondotik mutxikoak dantzatzeko atarian. Eguerdian, bezperan bezala, nahi dutenek tripotxak jaten ahalko dituzte ostatuan.

Bertsulari Xapelketa

Larunbatean jokatu-ko da finala Donibane Lohizuneko Jai Alai delakoan eta han herriko ordezkari bat izanen dugu, Karlos Aizpurua. Sortzez oiartzuarra da, baina aspaldi huntan gurean bizi da. Luhu-soko finalerdian arituzen, eta bigarren pos-

tua eskuratu zuen Amets Arzallusen ondotik. Igandean zaila izanen du xapela janztea baina ea sorpresa bat ematen digun eta hura herrira ekartzen.

Eguberrietako merkatua

Aurtengo Eguberrietako merkatua hazilaren 29an eginen da. Egun guzian, San Josepe eskolako haurrek

eta ikastolakoek saltzeko mahaiak ezarriko dituzte plazan. Lehenek Eguberrietako apaingarriak salduko dituzte eta bertzeek Herri Urratseko jantziak eta liburuak.

Informatika ikastaroa

Hilabete hunen hasieran egin beharra zen informatika ikastaroa gibelatu behar izan dute irakasleak ezin zuelako. Hilabete baten berantarekin hasiko da abenduaren 2an eta 5ean finituko lehen zatia. Bigarren zatia, berriz, otsailean izanen da 24tik 27ra. Izena eman zutenek berretsi behar dute haien parte-hartzea beste data horiekin, eta izen eman ez zutenek oraino egiten ahal dute. Ikastaroa ordenagailua eta Internet nola erabiltzen den ikasteko da.

Pala txapelketa

Gutti falta da Pleka Trinketeko pala txapelketa hasteko, eta izena emateko epea heldu den astelehenean irekiko da. Usaian bezala, lau mailatan jokatu-ko da eta parte hartu nahi dutenek (0033)559542206 zenbakira deitzea baik ez dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Urtxintxa eskubaloia taldea

Aurtengo Sarako Urtxintxa eskubaloia elkarte-ko lehen taldekoak dira argazkian ageri direnak. Gainean, Joana Guerendian, Sandra Santesteban, Marion Iramuno, Pantxika Mortalena, Laetitia Imaz, Pauline (Senpere) eta Aline Dubacqui ageri dira. Aitzinean, berriz, Anais Gorosureta, Mikela Gerard, Marina Goyenetze, Maia Jauregi, Mirentxu (Donibane Lohizune) eta Marion Surville. Argazkian falta direnak, Arantxa Ordoqui, Fanny eta Katy Lastra, Lorena Josi (Senpere), Laura Alty eta Elodie Garat dira. Entrenatzailea Jean Michel Bergara dute.

Okindegia *Jatetxea*

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
 Espezialitatea parrillan erretako jakietan
 Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea, goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea
 Tfnoa: 948 453 403
 31713 ARIZKUN

ARKITECTURA

ARKITEKTURA ETA BIRDIRAZTEA

ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
 URBANIZAZIO PROIEKTOAK
 ETXE BERRITZEAK
 NABEAK
 KONSULTAEK
 INFOGRAFIA: 3D

ELIZONDO - Santiago, 54 behea - 948 581 931
BERA - Estegara, 8 behea - 948 625 232

SENPERE

Luberriako lanak laster bururatuko dira

Casaubonen ustez, urtegiak alde onak ditu baina ez da aski izanen

Franck DOLOSOR

20 urteko proiektua egia bilakatuko da ondoko egunetan Luberriako urtegia estreinatzean. Gaur egun Ipar Euskal Herrian egiten ari den obrarik haundiena da, orotarar hamar milioi euro pasatxoko gastua sortu baitu. Cherchebruit, Ainhoa eta Dantxarinea artean eraiki duten urtegia Frantziako Gobernuak, Akitaniako lurralde kontseiluak, Pirineo Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak eta Urdazuri aldeko herriek ordainduko dute. 1983ko abuztuaren 26an, uholdeak gertatu ziren Urdazuri ibaia bere bidetik atera zelarik. Kalte haundiak sortu ziren Senperen eta berehala urtegia egiteko beharra agertu zen, baina hautetsiek 20 urte behar izan dituzte ideia egia bihurtzeko.

Christine Bessonart andere auzapezak lan haundia egin du urteotan lanak egiteko Luberrian, orain arte laborariek baliatu dituzten lurretan. Urtegia hutsa eta idorra izanen da, uholde egunetan baizik ez da beteko eta ura eztekiago ixuriko da. Denbora gehiago izanen omen da herritarrei uholdeen berri emateko.

'ONA, BAINA EZ NAHIKOA'

Jakes Casaubon izurarrak ongi ezagutzen du Senpere oihanzain egon baitzen zonbait urtez. Bere ustez, «urtegiak gauza ainitz ekarriko dio Senpereri». Baxe nafartarrak dio «uholdeen egunean ez duela ura geldituko baina kasik metra bat gutiagotik litakeela. Etxe ainitzetan ez da, beraz, gehiago urik sartuko». Gainerat, ehun urteko uholde-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Jakes Casaubonek hurbiletik segitu ditu Luberriako lanak. Orain Miarrirtzen hartu du erretiroa baina herriko berriak ongi segitzen ditu 83 urteko senperezaleak.

ak apalagoak izanen dira eta ura ez omen da gehiago kasik aterako.

Dena den, Casaubonek argi du Luberria ez dela aski eta behar dela lanean segitu Saran eta Ortango aldean. «Hautesiek ez dute kontuan hartu adituen txostenak zioena, hau da, urtegia egiteaz gain, alde guzietatik ixurtzen den ura ere behar dela gelditu». Casaubonek gogoratzen du Luluako gainean ura gelditzeko egin zen lana. «Ez da Jainkoari esker obra haundia hortik etortzen ura gelditzeko. Le-

hen, edozoin ekaitzetan eta euri haundietan, ur guzia karrika nagusirat jausten zen eta dena zikintzen zuen». Malda haundia baitzuen dena itotzen zuela oroitzen da Jakes. «Presa tiki hori egitea aski izan da, uzten du ura pasatzen, haunditzen delarik oren pare batez metatzen du eta ez da gehiago heldu karrikarat». Casaubonek gogoratzen duenez, «uholdeek ez dute luzaz irauten, aski gora joaten da baina fite behieitzen da». Bere erranetan, Saran badituzte toki egokiak

presa tikiak egiteko baina aintziran ez da hain errexa etxe ainitz altxatu baita azken urteetan. Halere, badira bizpahiru toki urtegitxoak egiteko Motxokobordako errekan.

Jakesek dio 2007ko maiatzeko uholdeetan Urdazuri ibaia atera zela baina erreka tikiak ere hartu ziren eta kalteak sortu baitzituzten, arrasta bat eman behar zaie, noiz nahi gertatuko baita berri ere desmasia bera. Luluan egin zuten, ez zen ainitz gosta eta geroztik ez da gehiago urik ixuri karrika nagusirat.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



EZKONTZAK

Benito Varela Miguel eta **M^a Isabel Leon Basterra**, Irungoa eta Donostia-koa, urriaren 28an Beran.

Imanol Iriberry Goikoetxea eta **Itziar Ripa Amorena**, Iruritakoa eta Urdiaingoa, urriaren 25ean Iruritan.

Jose Antonio Alzuarde Magirena eta **Patrizia Tainta Sanchez**, Oronoz-Mugairi eta Iruñekoa, urriaren 18an Oronoz-Mugairin.

Juan Angel Ibarra Ibarra eta **Garaine Gaskue Goñi**, Zigakoa eta Burlatakoa, urriaren 11n Zigan.

Jabier Zabaltza Gartzia eta **M^a Carmen Mugiro Altuna**, Elizondokoak, urriaren 18an Elizondon.

Pepito Jorajuria eta **Martin Figaro**, urriaren 25ean Saran.



SORTZEAK

Oier Sarrias Telletxea, Arantzakoa, urriaren 28an.

Izar Lopez Zubillaga, Leitzakoa, irailaren 30ean.

Ainara Varela Leon, Berakoa, urriaren 23an.

Peio Morate Andueza, Berakoa, urriaren 28an

Malen Morate Andueza, Berakoa, urriaren 28an.

Antton Lamothe Arnedo, Zugarramurdikoa, azaroaren 1ean.

Naroa Etxaide Ballarena, Elizondokoa, urriaren 18an.

Mikel Iatasa Izkieta, Elizondokoa, urriaren 12an.

Asier Barrenetxe Mitxelena, Elizondokoa, urriaren 22an.

Aitor Organbide Aleman, Elizondokoa, urriaren 24an.

Maritxu Apezetxea Alvarez, Berroetakoak, urriaren 23an.

Lea Arburua, Sarakoa, urriaren 18an.

Intza Larronde, Sarakoa, urriaren 20an.

Anais Gomez Da Silva, Sarakoa, urriaren 24an.

Joanes Saint Martin, Sarakoa, urriaren 28an.



HERIOTZAK

Juan Jose Eugi Jaunsaras, Elizondon, urriaren 25ean, 81 urte.

M^a Juncal Amundarain Peluaga, Beran, urriaren 26an, 35 urte.

Rosario Amigorena Irisarri, Donamariakoa, urriaren 28an, 94 urte.

Sofia Iturria Galartza, Elizondokoa, urriaren 30ean, 90 urte.

Mauricio Elizalde Elizalde, Zubieta-koa, urriaren 31n, 80 urte.

Primitiva Esparza Ros, Elizondon, urriaren 22an, 84 urte.

Manuela Inda Maritorea, Amaiurkoa, azaroaren 1ean, 88 urte.



Victoria HITA ARCE 'Bittori'

Alejandro Jaunikotena Torresen alarguna

IV. URTEURRENA

Cancunen (Mexiko) hil zen, 2004ko azaroaren 27an

*Ez agurrik, ez adiorik
gero arte baizik.
Gure bihotzetan betiko
maite zaitugu amatxi.
Gogoan zaitugu.*

ZURE FAMILIA



HERRI KIROLAK

Herri kirol jaialdi haundia izanen da ortziral honetan Doneztebeko ferien barne

Nafarroako Bigarren Mailako Aizkora eta Arpana txapelketak jokatu dira pilotalekuan

ttipi-ttapa

Urtero bezala, herriari eta inguruan herri kirolek sortzen duten zaletasunarik hutsik egin gabe, jaialdi haundia ikusteko aukera izanen da ortziral honetan, azaroak 14, Doneztebeko ferien barne. Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatuta, Udal Pilotalekuan jokatuko dira saioak, 17:30etik aitzinera.

Alde batetik, Nafarroako Bigarren Mailako Aizkora Txapelketako finala jokatu da. Hauek ariko dira lehia: Ander Erasun (Aurtitz), Luis M^a Bellarra (Doneztebe), Manuel Kañamares (Arostegi), Juan Jose Erdozia



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean ere, Doneztebeko ferien egunean jokatu zen Nafarroako Bigarren Mailako Arpana txapelketa eta argazkian ageri den Portu eta Txopereña bikotea atera zen garaile.

(Etxarri Arantz) eta David Amillano (Altsasu). Aizkolariek borts enbor

izanen dituzte ebakitzeko: bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat.

ARPLANARIEN SAIOA

Aizkolarien ondotik, arpanlarien txanda izanen da eta Nafarroako

Bigarren Mailako Arpana Txapelketa jokatu da. Saio honetan hiru bikotek parte hartuko dute: Igor Lasaga (Bera) eta Jabier Galarregi (Etxalar) bikoteak; Ander Iribarren (Auza) eta Mikel Eugik (Beunza); eta Euker Mindegia eta Jesus Zelaietak (Ornoz-Mugairi). 45 ontzako enborrarri 10 korte etzanda eta lau zutik egin beharko dizkiote.

ERAKUSTALDIA

Aizkolaria eta arpanlarien saioen tartean, bi harri-jasotzailek erakustaldia eskainiko dute: Unai Bertiz sunbildarrak eta Josetxo Urrutia leitzarrak.

SOKATIRA

Igande honetan hasiko da Arbizon Nafarroako Goma Gaineko 8x8 Sokatira Txapelketa

Gizonetan bi talde baino ez daude

ttipi-ttapa

Igande honetan, azaroak 16, abiatuko da Nafarroako Goma Gaineko 8x8 Sokatira Txapelketa. Emakumezkoetan eta gizonetzkoetan lehiatuko dira, 640 eta 600 kiloko kategorietan gizonetzkoak eta 500 kiloko mailan neskek.

Gizonetan bi talde baino ez dute eman izena: Berriozarrek eta Amaiurrek. Bi kategorietan ariko dira eta beraz, bietakoa batentzat izanen da aurtengo txapela.

Emakumezkoetan, aldez, parte-hartzea zabalagoa izanen da. Borts taldek eman dute izena



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Beti Gazteko neskek joan den urteko Nafarroako Sokatira Txapelketan.

eta tartean daude eskualdeko bi: Lesakako Beti Gazte eta Amaiur. Gainerakoak, Sakana, Txantrea eta Berriozar dira.

Lehen saioa igandehonetan jokatu da Ar-

bizon, 12:00etan hasita. Bigarren jardunaldia hilaren 22an jokatu da eta hirugarrena eta azkena Lesakan hilaren 29an, 17:00etan pilotalekuan.

Emakumezkoetan hiru jardunaldi jokatu dira eta gizonetzkoetan bi jardunaldi maila bakoitzean. 640 kiloko lehiak hilaren 16an eta 22an eta 600 kiloko bi lehiak 29an.

LASTERKETA

Louajari marokoarrak 12 segundotan hobetu du Lizuniagako Igoeran ezarritako marka

Azken 26 urteotako denborarik onena Peio Garinek egin zuen

ttipi-ttapa

1982az geroztik, Peio Garinek zuen marka erori zen urriaren 25ean egin zen Lizuniagako Igoeran. Bigarren edizioan egin zuen 16:13 segundoko marka haundi hura Garinek eta 28. edizioan, 12 segundotan hobetu du Abdelfetah Louajarik. Urte hasieratik Zizurren bizi eta Ardoi taldearekin dabilen marokoarrak marka bikaina egin zuen eta segundo bakar batengatik gainditu zuen 16. minutuak; 16:01eko markari esker, marka hobetzen zuenarentzat zeuden 300 euroak eskuratu zituen.

Gure Txokoa Elkarrekin antolatutako proba honetan 95 bat korrikalarik hartu zuen parte, lasterketa nagusiko kategorian ezberdinetan banatuak: 49 senior kategorian, 29 beteranoetan, 16 emakumezkoetan eta junior bat. 4,9 kilometro egin behar izan zituzten. Horrez gain, kiroldegi eta Jamotenea inguruan aritu ziren ttikienak eta Maletetik Lizuniagarako bidea egin zuten koxkorxeagoak gehitu behar zaizkie. 3 eta 15 urte arteko 40 bat kirolarik egin zituzten lasterketak.

Zelaian, lehenbiziko bi kilometroetan, Loua-



ARGAZKIA: LEGARRA

Lasterketa abiatu aitzinetik, irabazteaz gain marka hobetu nahi zuela adierazi zuen Abdelfetah Louajari marokoarrak, eta halaxe egin zuen.

jarariren inguruan ibili ziren Pedro Ruiz donostiarra, Rafa Maritxalar lesakarra eta Jon Garraus irundarra, baina maldan goiti hasi zirenean aisa ihes egin zuen marokoarrak. Bigarren Ruiz donostiarra helmugaratu zuen (17:21) eta hirugarren Maritxalar lesakarra (17:31). Laugarren postuan Jon Garraus irundarra sartu zen eta bosgarrenean, denbora berean, (18:27) sartu ziren Manttaleko Patxi Iratzo-

ki igantziarra eta Alberto Barberena lekaorzarra. Segidan, Iñigo Lasaga etxalartarra sartu zen (18:46); Iñaki Pika-bea beratarak 19:03an osatu zuen ibilbidea, Patxi Vilak bezala.

Daniel Mehats baionarrak, Txema Villamea beratarak, Andoni Lasaga etxalartarrak, Fermintxo Oteiza narbatarak, Iban Zubieta beratarak, Unai Otazo etxalartarrak eta Ormaiztegi-ko Angel Pelaezek ere

20 minutu baino guttiago behar izan zuten ibilbidea osatzeko.

Beteranoen artean, Joxerra Loiarte beratarra izan zen bizkorrena (19:36), eta hirugarren Iñaki Larrañaga beratarra (20:30).

Emakumezkoen artean bizkorrena Cristina Arbues igantziarra izan zen (21:25); bigarrena Maika Ariztegi iturendarra izan zen (22:05) eta hirugarren Mari Sol Martinez irundarra (24:29).

ERREMONTA

Eskualde guztira zabaldu nahi dute Doneztebeko Erremonte Eskola

13-16 urteko gazteei dago irekia

ttipi-ttapa

Erremonteak inon tokirik baldin badu, hori Doneztebe da. Erremonteari hagitz lotuta dagoen herria izan baita betidanik. Erremontelari haundiak eman dituen eta ematen ari den herria ere bada: Koteto, Lizaso, Uterga, Olazar... Baina Doneztebe inguruan ere izen haundiko erremonte-

telariak badira, hala nola, Migel Mari Urrutia. Kirolari horiek guztiak Doneztebeko Erremonte Eskolan hasitakoak dira.

Urte batzuetako geldialdiaren ondotik, 2006ko urrian berriz martxan jarri zen Erremonte Eskola, eta orain Maleirekatik kanpo, eremu zabalagoa hartu nahian, erremontean aritzeko



ARGAZKIA: LEIRE AMOROSEK UTZITAKOA

Erremontelari gazteak Lander irakaslearekin batera.

gonbita luzatu diete ikasi nahi duten guztiei.

13 urtetik 16 urtera bitartean dituzten gazteek erremontean ari nahi ba-

dute, Doneztebeko frontoian dute aukera. Horretarako Lander erremonte irakaslearekin jarri beharko dute ha-

rremanetan, 659 784 349 telefonora deituta. Klaseak ortziraletan izaten dira, 18:00etatik 22:00etara bitarte.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

LEHIAKETAK

BORTZIRIAK

Azaroaren 28a bitarte, Bortzirietako Haur eta Gazteen Ipuin Lehiaketa.

HAURRENTZAKO AISIALDIA

DONEZTEBE

Azaroaren 22an, Eritz magoaren ikuskizuna.

ORNOZ-MUGAIRI

Azaroaren 30ean, *Marilo Betilo* antzezlan. 18:00etan Gaztelune elkarte.

ZINEMA

LEGASA

Azaroaren 23an, *El Cid* filmea, 16:00etan, plazan.

LEITZA

Azaroaren 14an eta 16an, *Antes de que el diablo sepa que has muerto* filma. Ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.
Azaroaren 21ean eta 23an, *Al otro lado* filma. Ostiralean 22:30ean; igandean 19:30ean.
Azaroaren 28an eta 30ean, *Che, el argentino* filma. Ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean.

KONTZERTUAK

ETXALAR

Azaroaren 15ean, Etxeren kontzertua Herriko Ostatuan, 23:00etan.

SUNBILLA

Azaroaren 15ean, Giltzarri abesbatzaren emanaldia, 20:30ean Elizan.

ELIZONDO

Azaroaren 16an, Zurgo taldearen kontzertua Arizkunenean.
Azaroaren 23an, Lantz musika taldearen emanaldia. Arizkunenean.

TELEBISTAKO TXOKOA



Udazkeneko azken feriak ttipi-ttapan telebistan ikusgai

ASTE HONETAN DONEZTEBEKOEN BERRI

Udazkena aitzinera doa eta horrekin batera eskualdean han eta hemen egiten diren azoka edo feriak ere bai. Elizondoko feriekin hasi zuen TTIPI-TTAPA TELEBISTAK itzulia eta Berako Lurraren Eguna ere eman zion segida. Arantzako Baserritarren Eguna etorri zen ondotik, eta aste honetan Doneztebeko ferien txanda izanen da. Mingain urdinaren gaitzaren ondorioz, joan den urtean ez genuen azokarik ikusi ferietan. Aurtentzen, ordea, bai. Horretarako aukera izanen da ortziral honetan, azaroak 14, egiten diren Doneztebeko ferietan. Donezteberen ondotik Lesakak eta Goizuetak har-

tuko dute lekukoa. Doneztebeko eta Lesakako feriek ematen dutena TTIPI-TTAPA TELEBISTAN ikusteko aukera izanen da.

AIZKORA ETA ARPANA TXAPELKETAK DONEZTEBEN

Herri kirol mailako bi txapelketa garrantzitsu ikusteko aukera izanen da Doneztebeko ferietan, bigarren mailako aizkolari eta arpanalariek txapelak jokoan izanen baitituzte. Horiez gain, harri-jasotzaileen erakusketa ere egiten da eta TTIPI-TTAPA TELEBISTA han izanen da guztia jaso eta heldu den astelehenean, azaroak 17, etxeko pantailan eskaintzeko.

DISKAK



Herriaren oihua

HESIAN

GOR, 2008

Herriaren oihua du izena Hesian talde nafarraren disko berriak. 12 kantu bildu dituzte, maitasuna, lurra, politika edota berdintasunari buruzkoak. Aitzinero lanean erabili zuten estilo berdinari eutsi diote, eta hala, emakume-gizon ahotsen konbinaketa nabarmen zuten da eta haize sekzioari garrantzi gehiago eman diote. Musika landuagoa eta helduagoa da, baina freskotasunik galdu ez duena. Euskal Herriaren barna kontzertu andana ematen ari da Hesian. Taldekideek bizitasuna, indarra eta freskotasuna eskaintzen dituzte taularen gainean eta hori guztia disko honetan islatu nahi izan dute. Aurtengo uztailean eta abuztuan grabatu zuten diskoa, eta lan honetarako aukeratu duten lehen singleak *Begi Beltz* du izena.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (urriaren 24tik 31ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 23,00 € (-7,00)

Zerri gizena
1,033€ kilo. (-0,030)

Zerramak:
0,580€ Kg/bizirik. (-0,030)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,07 (=)

1.koa 3,77 (=)
2.koa 3,07 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,17 (=)
1.koa 3,87 (=)
2.koa 3,19 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttiikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 175,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,10/3,20
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 8,40/9,20
8-10 kilokoak: 7,10/7,60

JAKIN BEHARREKOAK

Krisi ekonomikoa dela-eta, kreditu txartelen erabilera hazi egin da

Maiz, interesekin dezente gehiago ordaindu behar dela atzentzen da

Orain dela urte batzuk arte, jendeak ahal zuena erosten zuen, gehiegizko gastuetan sartu gabe. Baina gizartearen erritmoa aldatu egin da, eta gaur egun, gastu handiei aitzin egiteko batez ere, kredituak eskatzea ohiko bihurtu da. Kreditu txartelen erabilerak ere nabarmen egin dute goiti, eta horrek eragiten duen zorpetze-maila ere hazi egin da. Estatu espainiarrean egindako azterketa baten arabera, 2007an bankuetan egindako pasiboko eragiketen bidez sortutako zorren %27a kreditu txartel eta kreditu azkarrekin sortutakoa zen. Eta urtea bukatu aitzinetik, familia bakoitzaren zorpetze-maila bere gaitasuna baino %140 haundiago izan daitekeela dioten ikerketek ere bada. Baina krisiaz hainberetz solasten den ga-



Argi ibili behar da kreditu-txartelen erabilerarekin; ematen dutena baino gehiago kentzen baitute interesen bitartez.

raian, familia aunitzen aterabidea kreditu-txartelak erabiltzea da. Sakelari dirurik ez, eta txartelak gerora ordaintzeko aukera ematen dutenez, gero eta gehiago erabiltzen dira.

TXARTEL DESBERDINAK

Ordainketak finantzatzeko moduaren arabera, kreditu txartelak diru txartelak, debito-txartela

deiturikoa dago. Hauek dirua ateratzeko erabiltzen dira. Hauekin erosketak momentuan ordain ditzakegu. Azken batean, bankuko dirua ordezkatzeko du, eta bankuan dirurik ez bada txartel honek ez du balio. Bertzalde, berriz, kreditu txartelak daude, eta muga baten barruan bankuan ez dagoen diruarekin ordainketak egiteko aukera ematen du -600

eta 6.000 euro arte—. Baina ez da hor bukatzen kontua. Izan ere, bankuek dirua «uztearen» ondorioz, interesak kobratzen ditu. Zerbaitetan, bankuak hasiera batean «utzi» duena baino %11-25 gehiago ordaintzea tokatuko zaio gerora erabiltzaileari.

Kreditu-txartelek gerora ordaintzeko ematen duten aukeraz baliatuta, jendeak txartel horiek erabiltzeari ekin dio, gero eta gehiago gainera. Estatu espainiarrean, erraterako, urteko lehen sei hilabeteetan 44,78 milioi kreditu-txartel zeuden erabilgarri, 2007an garai berean baino %10 gehiago. Gisa honetan, espainiar estatuko herritar bakoitzak kreditu-txartel bana izan du. Aitzitik, 31 milioi debito-txartel erabiltzen dira eta azken urteotan kopurua horretan mantendu da.

LIBURUAK



Jorge Oteiza

Nere LUJANBIO

ELKAR, 2008

Jorge Oteiza (Orio, 1908-Altzuz, 2003) euskal artistarik ezagunena da, eta euskal gizartearen eragin sakonena izan duen pertsonetako bat, arlo guztietan. Eskultura landu zuen batik bat, baina Oteizaren eragina haren arte-lanetatik harago doa: bere obra teorikoei, susperitu zituen mugimendu kolektiboek, bere nortasun biziak pertsonaia berezia bihurtu zuten, maitatua bezain gorrotatua. Izaera petral eta liluragarri horri dagozkion pasadizoetan

baino gehiago, haren ideia eta obra artistikoen sorrera eta bilakaeraren azterketan saiatu da Nere Lujanbio, biografia-entrenigarri baina mamitsua idatziz, bere laburrean artistaren goi-beheak marraztuz. Bizitzarekin kontakizunaz, ikuspegi artistikoaren garapenaz eta gizartearen izandako eraginaz gain, bertze hainbat atal ditu liburuak: bizitza osoan egindako eskultura esanguratsuenen argazki komentatuak, kronologia, bibliografia hautatua...

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

MENDI ATERALDIAK

BERA

Azaroaren 16an, Santa Barbarara ateraldia, Labiaga Ikastolako Larun-Tiki Mendi Taldeak antolatuta. 9:30ean lamoteneatik.

Azaroaren 30ean, Gondendiagara mendira irteera, Labiaga Ikastolako Larun-Tiki Mendi Taldeak antolatuta. 9:30ean lamoteneatik.

OSPAKIZUNAK

LEITZA

Azaroaren 29an, abesbatzen topaketa.

ZUGARRAMURDI

Azaroaren 29an eta 30ean, sorgin ehizaren 400. urteurreneko ekitaldiak.

SARA

Azaroaren 29an, inguruko Gazte Asanbaldearen topaketa.

KANTUA

URDZUBI

Azaroaren 29an, Kantu Zaharren Eguna.

BERTSOA

LESAKA

Azaroaren 22an, bertso bazkaria Arranon. Elortza, Zubeldia, Josu Goikoetxearen zuzendaritzapean.

FERIAK

DONEZTEBE

Azaroaren 14an, Doneztebeko feriak.

LESAKA

Azaroaren 20an, Lesakako feriak.

GOIZUETA

Azaroaren 29an, Goizuetako Feriak.

egien luke Bortzirietan. Adineko jendea zaintzen esperientzia duena. ☎664545925.
Asteburuetan lan eginen nuke. ☎620 171336.

MOTORRA 501 Salerosketak

Kawasaki ZZR 1.100 motorra salgai. Gurrpil berriak eta maletarekin. 45.800 km. SS-4911-AJ matrikuladuna. Egoera onean. Prezioa: 2.000 euro. ☎646 769186.

Seat Ibiza 1.400 autoa salgai. Gasolina. Egokia gida-baimena atera berri du tenentzat. 2003koa, parrotarekin eta haize egokituarekin. ☎699 279940.

Yamaha banshee 350 markako quad bat erosiko nuke. Motorra puskatua edo egoera txarrean. ☎659 019812/699 928540.

Ford Mondeo turbo diesela salgai. 1.700 euro. ☎948 580265.

Opel Astra DTI auto beltza salgai. 16 balbula. Egoera onean. ☎617 144210 (19:30etik aitzinera)

Citroen Xantia salgai, NABC matrikula. ☎651 074865.

Gas-gas trialeko motorra salgai. 2001ekoa. Txaxis pro. ☎677 022237

Ford Scort 1.8 autoa salgai, 16 balbulakoa. Polita

eta egoera onean. ☎626 425146.

BMW 330d Touring autoa salgai, 2002koa, 127.000 km, nazionala. 16.000 euro. ☎948 630709.



BMW X5 Sport autoa salgai. Extra guztiak. Diesel. 2001ekoa. 24.000 euro. ☎686 970618.



MOTORRA 502 Tailerrak



MENDAUR MOTOR

948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

ANIMALIAK

601 Emateko

Katakumeak oparitzeko.
☎948 451787.

ANIMALIAK

602 Salerosketak

Oilandak salgai, kolore guzietakoak eta erruten hasiteko. ☎648 053679.

DENETARIK

701 Galdu-aurkituak

Hautsitako **plaka duen urrezko kate** bat aurkitu da Berako Zalain industrialdean. Diagonalean egindako markak ditu eta errektangularrak da. Ez du inskripziorik. ☎948 630955.

DENETARIK

702 Salerosketak

Bigarren eskuko **plastikozko 550 kaxa** salgai. 280 kaxa 80x60x22 neurrikoak eta 270 kaxa 40x60x30 neurrikoak. ☎618 542592.

Aluminiozko 190 apal salgai. Bigarren eskuko-

SANTESTEBAN
Tailerrak

Leizako bidai • DONEZTEBE
Tel 948 450 252 • 948 450 597

ESKAINZA PAREGABEAK

FURGONETA SA BERRIAK	TURISMOAK
Kangoo Combi 1.5 DCI (2007)	Clio III 1.5 DCI (2007)
Kangoo 4x4 1.9 DCI (2006)	Scenic II 1.5 DCI 105 CV (2007)
Kangoo Grand Volumen 1.5 DCI (2006)	Scenic II 1.9 DCI 130 CV (2007)
Kangoo Express 1.9 D (2003)	Megane II 1.5 DCI 105 CV (2007)

MERKATU TTIKIA

zure iragarkia 3 tokitan

Aldizkaria
+
Telebista
+
Internet

8€

ttipi-rtapa • 948 635 458 • www.ttipi.net

ak. 12 metroko luzera eta 3 metroko altuera. ☎618 542592.

Zinta eliptikoa salgai, Orbitrek Platirum markakoa. Muskuluak lantzeko egoia. Distantzia, denbora, kontsumitutako kaloriak eta

abiadura neurtzen ditu. 120 euro negoziagarriak. ☎948 631017.

Akordeioa salgai, 120 baxukoa. Borsini markakoa. ☎948 630756.

Laster egiteko zinta erosiko nuke. ☎636 827980.

Merkataritzako lehiakortasuna eta kalitatea hobetzeko dirulaguntzak 2008-2011

Informazioa emateko bilerak

Merkataritzaren lehiakortasuna eta kalitatea hobetzeko laguntza berriak eta hobeak onartu ditu Nafarroako Gobernuak. Zatoz **Leizta** eta **Elizondan** antolatuta diren bilera hauetara ezagutzeko dirulaguntza aukera desberdinak, norentzako diren bideratuak, zeintzuk diren lagunduko diren proiektuak, nola egin behar diren eskaerak eta zenbateko laguntza eskuratu ahal izanen den.

	Noiz	Tokia	Hizlaria
LEITZA	Azaroak 20, osteguna Ordua: 20:15	Udalebrea	Maite Dominguez (Nafarroako Gobernuako Merkataritzarako Zerbitzuen Ataleko burua)
ELIZONDO	Azaroak 27, osteguna Ordua: 15:00	Arizkunenea	Maite Dominguez (Nafarroako Gobernuako Merkataritzarako Zerbitzuen Ataleko burua)

Animatu eta zatoz bilerara!

Zure negoziarako interesgarri da.

Informazioa eta lehen emateak:


Begoña Ibaraguiri / Tel. 948 62 51 22
bidatasa.admon@cedema.es



Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



ASIER LA TORRE beratarrak 5 urte bete ditu azaroaren 9an. Zorionak etxeko bihurriari Andoni, aita eta amaren partetik. Muxu haundi bat!



ASIER LA TORRE beratarrak 5 urte egin ditu azaroaren 9an. Zorionak eta bortz muxu familia guztiaren partetik.



AITOR eta **ENEKO ETXEBERRIA** beratarrek azaroaren 2an urtea bete dute. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Urriaren 28an Lesakako **JOSE IRIGOIEN** eta Añorgako **ANTTONI GOLDARAZENA**ren Urrezko Ezteiak izan ziren. Zorionak seme-alaben eta iloben partetik. Segi orain bezain jator!



Berako **AINHOA** gure printzesak eta **MIKEL** gure futbolariak 3 eta 7 urte beteko dituzte azaroaren 14an eta 20an. Zorionak eta muxu haundi bana atato eta amatoren partetik.




AITZIBER ZOZAIA JUANENA urroztarrek azaroaren 9an 2 urte bete ditu. Zorionak printzesita zure lehengusu eta familia guztiaren partetik.



JON LARRETXE A BALLESTER lesakarrak bi urte egin ditu azaroaren 4an. Zorionak eta bi muxu haundi attatto eta amatoren partetik.



JON LARRETXE A BALLESTER gure pottokok azaroaren 4an bi urte egin ditu. Zorionak Lesakako eta Arantzako familien partetik.



ARGOITZek azaroaren 13an urtea beteko du. Jada urte-txo bat pottoki! Muxu asko aitatto eta amatoren partetik.




AINARAK azaroaren 13an 3 urte beteko ditu. Aunitz urtez familiaren partetik.



AIMAR ZAMORANO DUARTE lesakarra 8 urte beteko ditu azaroaren 29an. Zorionak familia guztiaren partetik.



Goizuetako **NEREA ETXEBERRIA AROZENAK** urtea bete du urriaren 24an. Zorionak eta pa handi bat familia guztiaren partetik.



Goizuetako **PAULA ETXEBERRIA AROZENAK** 3 urte beteko ditu azaroaren 22an. Zorionak eta 3 muxu pottolo gure mariosinari.



IOAR TAINTA NOBLE lesakarrak azaroaren 12an 16 urte bete ditu. 16 muxu goxo-goxo maitasunez zure familiaren partetik. Ongi pasa bertsolari!



Elizondoko **UNAX** eta **UGAITZ APEZTEGIA BIDE**gainek 2 eta 5 urte beteko dituzte azaroaren 1ean eta 28an. Zorionak eta muxu haundi bat Aitz, Hodei eta Haizearen partetik. Prestatu merendola goxo goxo bat.



Lesakako **BENATEK** azaroaren 23an 3 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu pottolo Behoko-Errotako attona, amatxi, osaba eta izeben partetik.



Ezkurrako **MIKEL VALDES ZABALOK** 4 urte bete ditu azaroaren 9an. Zorionak trake-tsa, ondo pasa zure egunean eta muxuak maitasunez familiaren partetik.




Ezkurrako **AINGERU VALDES ZABALOK** 4 urte bete ditu azaroaren 9an. Zorionak bitxo, ondo pasa zure egunean eta muxuak maitasunez familiaren partetik.



Abenduaren 7an urteak beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta bere-xiki Titoren partetik



Zugarramurdi-ko **MARIA ETXABE OLHAGARYK** 6 urte beteko ditu azaroaren 14an. Zorionak eta muxu haundi bat Maialen-aren partetik.




ARGOITZ ERASUN ORTUOSTEK urtea beteko du azaroaren 13an. Muxu haundi bat Aurtiztik, eta bere-xiki Ekiñeren partetik.



Gure etxeko ttikiak urteak beteko ditu azaroaren 21ean. Aunitz urtez eta muxu haundi haundi bat familia guztiaren partetik.



LEIRE PORTUK urteak beteko ditu azaroaren 20an. Muxu haundi haundi pila bat Orti eta Lexuriren partetik. Maite zaitugu!



Gazteluko **ALAIN SARRATEA FAGOGAK** 2 urte beteko ditu azaroaren 20an. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik. Zorionak Alain-txo.



OLAIA URRUTIA amaiurtarrak azaroaren 20an urtea beteko du. Zorionak etxeko partetik.



ASIER BARBERENA elizondarrak urtea beteko du azaroaren 13an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



ASIER BARBERENA ОРОКА: Aunitz urtez!!! Azaroaren 13an zure lehenbiziko urtebetetzea. Pa haundi bat etxeko partetik.

zure argazkia, marrazkia... telebistan ikusi nahi duzu?

BIDALI kontent jarriko rasall!

marimare

marimare@ttipi.net
helbidera bidali eta marimare saloan aterako da.

marimare asteartetan 17:00etan
larunbatetan 11:00etan
TTIPI-TTAPA TELEBISTAN

BL

arropa-denda

BEOLA ETXEA

Ibardingo gaina, 30 · BERA · Tel. 948 630 709

Azaroak 29, larunbata eta azaroak 30, igandea

SUPER-PREZIOAK!

arropa guztia -%40

Beate Bot

BLEND



Bench. emerilloimon

Abenduaren 1etik abenduaren 31ra
eguberrietako eskaintza berezia

arropa
osagarriak
bisuteria

-%20

lurrin kutxak
-%10

Cartier

KENZO

BOSS IKKS
HUGO BOSS

Lolita
Lempicka

GIORGIO ARMANI



deskontuak

DENDA HAUTETAN EROSTEGATIK

ZALAIN MOTOR

ZALAIN MOTOR Tailerra • BERA
%5eko deskontua errekanbioetan

AYLA

argazkigintza, fotografia

AYLA Argazki-denda • BERA
%10 kopia digitaletan, NAN argazkietan



OSTIZ Zapata-denda • DONEZTEBE
%10eko deskontua

IPINGI

IPINGI Arropa-denda • ELIZONDO
%10eko deskontua, 30€tik gorako gastan

JAIONE

JAIONE Tindategia • DONEZTEBE
%10eko deskontua, 12€tik gorako gastan

FOTO-ERAGAZIAK GOIKO

GOIKO Argazki-denda • BERA
%10eko deskontua kopia digitaletan

SARIDUNAK:

- 3 liburu (Elkar): Amaia Arretxea (Sunbilla)
- Sagardoaren DVDa (Ola sagardotegia): Nerea Mitxelorena (Etxalar)
- Txapela Buruan kamiseta: Miren Iguzkiairre (Arantzaz) M^a Jose Zaldúa (Elbete)
- Buruhausgarriak (Ikastolen elk.): Blanca Perez (Etxalar)
- 6 DVD Euskal Artzainak Amerikan (Ttipi-ttapa): Izaskun Zubialde (Zubietal)
- Oninart 2 kamiseta: Ainara Mindegia (Aurtitz)



AQUARIUM 2 sarrera
Jaione Bengoetxea (Erratzu)

ORAIN www.ttipi.net

bitartez ere parte har dezakezu. Animatu!

ESKATU ZURE TXARTELA
948 63 54 58



ttipi txartelarekin beti irabazten da!

9 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu
astelenerotik ostiralera
09:00 - 16:00

Tel. 948 63 54 58

1 LAU LIBURU

Derak du bere proiektu New Yorkeko misterio Argazki begira Eorriren Irribarra

Lote 1

www.baizabal.com

2 2 KAMISETA

2 Lote
HARPIDETZA

Argia atziskariaren 6 hilabeteko harpidetza

2 Lote

www.argia.com

3 KAMISETA

2 Lote

www.txapelaburuan.com

4

Ttanito
ZUREZKO PUZZLEA

Lote 1

www.ikastola.net

5 MARTIKO

Lote 1

www.martiko.com

6

BI KAMISETA

Lote 1

www.oninart.com

ttipi saskia TTIPI SASKIAren ZOZKETAN JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE

Bidali SMSa idatziz TTIPI SASKIA eta zure IZEN-DEITURA **5767** ra



2 LOTE
(lote bakoitzak 4 sarrera)

AQUARIUM
DONOSTIA
943 44 00 99
www.aquariumbs.com

Zozketan parte hartzeko esku azarorain TTIPI saskiaren 1 lotu irabazteko izenak azarorain 27ko atziskariaren inguruetako dira. Mezuaren kosta 1.20€ (BEZ gabe). Zure datuak Ttipi-ttapanen hasierazko gondera dira auzorantzean zurekin daren eskatzaile berririk ez dagoelarik. Zuzenbata eta deialdearen bitarteko deitu 948 63 54 58ra.